

**GORPUTZ HEZKUNTZA, INKLUSIOA ULERTZEKO ETA
LANTZEKO BIDEA:
SENTSIBILIZAZIO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Bautista Martínez de Icaya, Mónica

ZUZENDARIA: López Vélez, Ana Luisa

ESKERRAK

Ana Luisari, azken urte hauetan eskainitako laguntzagarik eta lan honetan bidea ilun ikusi nuenean argitu izanagarik.

Nire lagunei, aholku onak emateagarik eta prozesua nirekin batera bizitzeagarik, batez ere, Anne Bengoari, lanaren hasieran izandako arretagarik eta eskainitako laguntzagarik.

Nire familiari eta batez ere Martari, prozesu honetan laguntzeagarik eta zirrarez elkarrekin bizitzeagarik.

Gaur nagoen tokira heltzeko lagundu nauten lagun eta irakasleei, mila esker!

Demagun eskola tradizionala, zapata-pare bat dela, zapatarik politenak eta erosoenak, eskulangile onenak eginak. Hori bai, zapata horiek 35 neurrikoak dira, eta, beraz, zenbaki horri egokitzen zaizkion neska-mutil guztiak eskola horretan ezin hobeto moldatuko dira.

Orain imajinatuko dugu zer gertatuko litzatekeen neurri ezberdina daukaten neska-mutilei zapata horiek jarriaraziko bageni. Ume horietako batzuek, nahiz eta mina eta oinak deformatzeko arriskua izan, azkenean, zapata horiek janztea lortuko lukete. Bestalde, beste hainbat umek ezingo litzukete jantzi, askotan saiatu arren.

Hori dela eta, ametsak egiten diren materialarekin, eskolak irudikatuko duen material bereko zapata pare bat egitea lortu behar dugu. Neska eta mutil bakoitzaren oinetara egokitzeko gai den materiala, haurrari oinutsik uzteko gai izango ez diren zapatak.

(2017, Rodriguez-en moldaketa)

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan, Gorputz Hezkuntza ikasgaiaren bidez inklusioa ulertzeko eta lantzeko proposamen didaktiko bat diseinatu da, Gasteizko eskola baten errealitatean oinarrituta dagoena. Lanean, eskolan bertan egindako behaketa eta ikasleei egindako galdeketen emaitzak oinarritzat hartuz, “Arin arin Inklusioari ekin” sentsibilizazio proposamen didaktikoa aurkeztuko da. Proposamena Lehen Hezkuntzako 2.zikloko ikasleentzat diseinatuta dago eta jarduera ezberdinak barne biltzen ditu, hala nola, gaur egungo jolasak eta desgaitasuna duten pertsonentzako egokitutako kirola. Jarduera ezberdinen praktikaren bidez, ikasleek Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) zer diren sentitu eta ulertuko dute. Horretarako, ekintza bakoitzean muga ezberdinak jarriko dira eta hauek aztertuz, sentituz eta bizi izanez ikasleek laguntzaren, errespetuaren eta enpatiaren garrantziaz ohartuko dira. Horrela, Gorputz Hezkuntzak sustatzen dituen baliabideak erabiliz, lan honek emozioen bidez inklusioa lantzea du helburu.

Gako-hitzak: Inklusioa, Gorputz Hezkuntza, emozioak, sentsibilizazioa, Lehen Hezkuntza.

RESUMEN

Este trabajo de Fin de Grado presenta una propuesta didáctica para trabajar la inclusión mediante la asignatura de Educación Física, basándose en la realidad de un colegio de Vitoria-Gasteiz. Para ello, se utilizará lo observado en el colegio y los resultados de las encuestas hechas a los alumnos, presentando así la propuesta didáctica de sensibilización llamada “Arin arin inklusioari ekin”. La propuesta está diseñada para trabajar con alumnos de 2º ciclo de Educación Primaria en la cual, se han diseñado diferentes actividades; juegos de hoy en día y deportes adaptados para personas con discapacidad. Con la práctica de las diferentes actividades, van a sentir y entender lo que son las Necesidades Educativas Especiales (NEE), van a experimentar diferentes límites y van a conocer y valorar la importancia de la ayuda, la empatía y el respeto. Beneficiándonos de todo lo que fomenta la Educación física, este trabajo tiene como objetivo trabar la inclusión desde las emociones.

Palabras clave: Inclusión, Educación Física, emociones, sensibilización, Educación Primaria.

SUMMARY

This final project will focus on the importance of inclusion in Physical Education classes based on observations made in an elementary school in Vitoria-Gasteiz. The results of questionnaires given to current students in addition to real-time observations are used to formulate a plan "Arin arin inklusioari ekin". The proposal is designed to work with students of the 2nd cycle of Primary Education in which different activities were designed both games currently played by students and others adapted for children with handicaps. With the implementation of these activities, students will feel and understand what the Special Educational Needs (SEN) are. The study will experiment with different limits and understand and evaluate the importance of the SEN, measuring empathy and respect. This proposal's objective will promote inclusion through emotional understanding and empathy in students.

Key Words: Inclusion, Physical Education, emotions, awareness, Primary Education

AURKIBIDEA

Sarrera	6
Justifikazioa	8
Helburuak	9
1. Marko teorikoa	10
1.1 Inklusio kontzeptuaren bilakaera.....	10
1.2 Eskola inklusiboa Euskal Autonomia Erkidegoan.....	11
1.3 Aniztasuna eskola inklusiboan	12
1.4 Hezkuntza premia bereziaren egoera	13
1.5 Gorputz Hezkuntza, inklusioa lantzeko bidea.....	14
1.6 Kirolak dituen garrantziaz baliatu inklusioa lantzeko	15
1.7 Inklusioa ulertzeko gorputz hezkuntzaren bidez emozioen lanketa	17
2. Testuingurua	18
2.1 Justifikazioa	18
2.2 Lortutako emaitzak....	20
2.2.1 Ikasleen inkestaren emaitzak	20
2.2.2 Galdera irekiari emandako erantzuna.....	23
2.2.3 Behaketa zuzenaren emaitzak	25
2.3 Ikastetxearen panoramika	27
3. GH inklusiboa lantzeko sentsibilizazio-proposamen didaktikoa	27
3.1 Justifikazioa	27
3.2 Lehen Hezkuntzako curriculuma Gorputz Hezkuntza inklusiboari begira	28
3.2.1 Konpetentzia motorra.....	30
3.2.2 Konpetentzia sozial eta zibikoa	31
3.3 “Arin arin inklusioari ekin” sentsibilizazio-proposamen didaktikoa	32
3.4 Jarduera bakoitzaren diseinua	33
3.5 Ebaluazioa	37
4 Balorazio pertsonala	41
5 Bibliografia	43
6 Eranskinak	45
6.1 Ikasleen galdeketa.....	45
6.2 Grafikoen erantzunak.....	47
6.3 Proposamen didaktikoaren bilduma	54
6.4 Ebaluazio fitxa	65

SARRERA

Gradu Amaierako Lan honen bidez, Gorputz Hezkuntza ikasgaia testuingurutzat hartuz, Inklusioa emozioen bidez ulertzeko eta sentitzeko Lehen Hezkuntzarako proposamen didaktiko eta ludiko bat sortu da. Lana atalka antolatuta dago, hasteko, justifikazioarekin batera helburu nagusiak eta espezifikoak aurkeztuko dira.

Lanaren lehenengo puntua marko teorikoa da, non Euskal Autonomia Erkidegoko datuetan oinarrituz, Gorputz Hezkuntza ikasgaiaz, ikasgaien azaleratzen diren emozioez, inklusioaren terminoaren bilakaeraz eta inklusioak daukan garrantziaz hitz egiten den. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) paper garrantzitsua izango du.

Bigarren atalean, GrAL-aren ikerketa lana aurrera eramateko aukeratutako ikastetxea eta bere ezaugarriak aurkeztuko dira. Halaber, bertan egindako behaketen eta galdeketen ondorioak aztertu eta analizatuko dira.

Gradu Amaierako Lanaren hirugarren atalean, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum aurreratu hartuz, nik diseinatutako proposamen didaktikoa aurkezten da, hau lanaren atal nagusia izanik.

Laugarren atalean, proposamen didaktikoaren ondorioak eta hausnarketa pertsonala aurkitzen dira.

Azkenik, bibliografia erreferentziak zehaztu dira lanaren bosgarren atalean.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urte hauetan, Hezkuntza Sistemak eboluzio eta hobekuntza nabarmena jasan duela argi dago lan asko falta den arren. Denborak aurrera egin ahala, hezkuntzan bezala, gizartean ere, aurrerapauso izugarriak eman dira. Hori dela eta, inklusioa eta Gorputz Hezkuntza (GH) batera lantzerantz eramanez gertatu diren arrazoiak anitzak izan dira.

Aurkezten dudana lan honetan, Gorputz Hezkuntza ikasgaiaren bidez, inklusioa zer den ulertzeko, inklusioarekiko sentsibilizazio proposamen didaktikoa martxan jartzen da. Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Irakasle Eskolan burututako Gradu Amaierako Lanari (GrAL) dagokio eta "Gorputz Hezkuntza, Inklusioa ulertzeko eta lantzeko bidea" izenburua jarri diot.

Unibertsitateko Lehen Hezkuntzako Graduan Gorputz Hezkuntzako minorra egin dut eta eskoletako benetako errealitatea aztertzeko eta ezagutzeko aukera izan dut. Hori dela eta, GHko irakaslearekin aritu naiz soilik, beraz, adin guztietako ikasleak eta premia ezberdinak dituzten haurrek ikasgela arrunta ez den beste espazio batean ikusteko eta ezagutzeko aukera izan dut. Izan ere, kezkarria iruditzen zait gaur egungo eskolak ikasle guztiarekin Inklusioa behar bezala ez lantzearen ondorioz, Hezkuntza Premia Berebidun (HPB) ikasleek egoera desatseginak bizi behar izatea.

Egia da inklusiorako bidea ez dela erraza eta horren sustapenak gaur egungo eskoletan erronka itzela dela hezkuntza sistemarentzat. Gainera, ezinbestekoa da Gorputz Hezkuntzari gainerako ikasgaiari ematen zaien garrantzia eta balore berdina ez ematea, bertan, beste ikasgaietan lantzen ez diren edukiak eta baloreak modu ludiko eta motibagarriz irakasteko aukera ematen delako. Euskal Autonomi Erkidegoko (EAEko) Oinarrizko Hezkuntza curriculumean (236/2015 DEKRETUA, 2016ko urtarrilaren 15a) oinarritzen den bezala, jolasak eta kirolak dira ikasleentzat giro hezitzaile inklusiboa eta gogobetegarria lortzeko tresna nagusia. Horretarako, inklusioa ikuspegi ludikotik landu behar da Gorputz Hezkuntzaren laguntzaz.

Etorkizuneko irakasle bezala, eta are gehiago Gorputz Hezkuntzako irakaslea izango naizenez, zalantzak sortzen dira gaur egungo eskoletan ikasleei aniztasunean hezteko prest dauden ala ez. Gaur egungo eskoletan ditugun ikasleak, etorkizuneko gizartea bideratuko duten gizakiak izango direla. Hori dela eta, sentsibilizazioa eta pentsamendu kritikoa izango duten gizakiak lortu nahian, txikitatik balore hauekin hezi beharko genituzke.

Izan ere, emaitza aberasgarriak lortzeko, aldez aurretik, proposamen esanguratsuak planteatu beharko genituzke nerabezaroan baztertze egoerak suerta ez daitezen. Horren ondorioz, gaur egungo hezkuntza sistema berritu nahian, honako proposamena aurkezten dut, “Arin arin Inklusioari ekin” deituta. Bertan, ikasleek muga ezberdinak esperimentatuko dituzte eta laguntzaren, errespetuaren zein enpatiaren garrantzia ezagutuko eta baloratuko dute. Gainera, urritasun mota desberdinak dauzkaten pertsonen errealitatera hurbilduko dira, jarduera ezberdinen praktikaren bidez. Jarduera horietan, ikasleek gaur egun ezagutzeen ditugun jolasak eta desgaitasuna duten pertsonentzako egokitutako kirolak ezagutuko eta landuko dituzte. Esandako azken honi erreferentzia eginez, nire Gradu Amaierako Lanaren abiapuntua aurkezten dut.

HELBURUAK

Gratu Amaierako Lan honen helburu nagusia honako hau da: Gorputz Hezkuntza ikasgaiaren bidez, azaleratzen diren emozioak abiapuntu hartuz, Lehen Hezkuntzako ikasleek inklusioarekiko sentsibilizazioa lantzeko, ulertzeko, euren buruetan sentitzeko eta bizitzeko proposamen didaktikoa aurkeztea da.

Bestalde, lanaren helburu espezifikoak hurrengoak dira:

- Lehen Hezkuntzako ikasleek Hezkuntza inklusiboaren eta bertan dagoen aniztasunaren inguruan ikastea.
- Gorputz Hezkuntza Inklusiboa zein den aztertzea.
- Gasteizko ikastetxe baten errealitatea ezagutzea egindako ikerketaren bidez. Alde batetik, ikastetxeko ikasleei egindako behaketaren bidez, eta bestetik, DBHko ikasleei esleitutako galdeketetan ateratako emaitzen bidez.
- Ikerketa egindako ikastetxearentzat GHko ikasgaietan lantzeko sentsibilizazio-proposamen didaktiko bat sortzea, LHko ikasleak norberaren ezagutza eta kontrola lantzeko, gorputz-adierazpena eta komunikazioa hobetzeko, jarduera fisikoaren eta osasunaren alde onaz ohartzeko eta aisiaz eta denbora librerako hezkuntzaz gozatzeko helburuarekin .

Behin helburuak aurkeztuta, lanaren marko teorikoa aztertuko da. Esan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoa paper garrantzitsua izango du, bertan dagoen egoera aztertuko delako. Gainera, inklusioaren terminoaren bilakaeraz eta inklusioak duen garrantziaz hitz egingo da, eta Gorputz Hezkuntza ikasgaietan azaleratzen diren emozioak abiapuntu hartuko dira inklusioa ulertzeko.

1. MARKO TEORIKOA

1.1 Inklusio kontzeptuaren bilakaera

Denborak aurrera egin ahala, bai hezkuntzan bai gizartean egon diren aldaketak nabarmenak izan dira. Izan ere, gaur egun hezkuntzaren arloan aldaketak eta berrikuntzak martxan jarraitu behar dituzte prozesua eta garapena aberasteko. Nahiz eta aldaketa horiek nabariak izan, aldaketa eta hobekuntza ugari ezartzea beharrezkoa izango da hezkuntza, ikasle guztietara moldatzeko (Echeita, 2016).

Hasieran, Hezkuntza Premia Berezia zeukaten ikasleek bazterketa izugarria jasaten zuten eta gainera, ez zuten hezkuntzarako eskubiderik. Hori dela eta, pertsona hauek garatzeko eta integratzeko eskubiderik ez zutela uste zen (Dussan, 2010).

Azkenaldi honetan, integrazioaren terminoak eboluzio handia jasan du eta inklusio terminora hurbiltzen ari da gero eta gehiago. Esan beharra dago, bi termino hauen arteko ezberdintasunak nabarmenak direla; baina inklusioaren terminoaz hitz egin baino lehen, “**integrazio**” terminoaren nondik norakoa aztertuko dugu.

Alde batetik, integrazioak, Hezkuntza Premia Berezidun ikasleengan arreta jartzen du soilik. Gainera, ikasle hauei oinarritutako hezkuntzari aurre egiteko, curriculumaren egokitzapenean oinarritzen da (Blanco, 2006). Bestetik, **Inklusioak** edozein bereizketa motaren kontra egiten du, ikasle guztien beharretara egokitutako kalitatezko hezkuntzan oinarrituz. Gainera, hezkuntza inklusiboak haur guztiek kontuan hartzen ditu, guztiei zuzenduta dagoelako. Aldi berean, hezkuntza inklusiboak diskriminazio baldintzarik jartzen ez duenez, ikasle bakoitzari bere gaitasunak garatzeko beharrezko baldintzak eskaintzen ditu, hezkuntza eskubidea, aukera berdintasuna eta partaidetza bermatuz (Fernández-Batanero, 2005).

Esan bezala, inklusioan oinarritutako hezkuntzan, ikasle guztiontzako sortutako curriculum komun batean oinarritzen da. Curriculumak ikasleek ikasteko modu ezberdinak erabiltzea du helburu, ikasle bakoitzaren gaitasunei eta beharrei arreta ipiniz (Blanco, 2006). Hori dela eta, Patterson-ek (1995, Fevas-en, 2010, or.18) horrela definitzen du inklusioa: *“Norbanako bakoitzak bere balioa duela eta taldeko kide dela uste izatean oinarritutako bizitzeko modu bat da, elkarrekin bizitzeko era. Inklusioan oinarritutako eskola ikasle guztiak barne, partaide, sentituko diren eskola izango da”*

Beste hainbat autorek horrela definitzen dute inklusioa: *“Aniztasuna ez da ikusten gainditu behar den arazo gisa, baizik eta denon ikaskuntza laguntzeko baliabide aberasgarri gisa”* (Booth, Ainscow, Black-Hawkins, Vaughen eta Show, 2000, Darretxe-n, 2013, or. 17)

Esan bezala, gaur egungo eskolak ikasle guztien beharrak asetzeko esku hartze desberdinak burutzeko prest egon beharko dira (Escribano eta Martínez, 2013). Era berean, ez dugu ahaztu behar hezkuntza inklusiboa gizaki guztiek duten eskubide bezala definitzen dela, modu horretan, diskriminazio egoerak baztertuz (Echeita, 2016).

Laburbilduz, inklusioa gizartea ulertzeko modu berri baten parte denez, hezkuntza inklusiboa ez da bakarrik hezkuntza arloan gelditu behar, baizik eta, komunitate osora zabaldu beharko litzateke. Esan bezala, hezkuntza inklusiboak ikasle guztien onarpena bermatu behar du, bakoitzari bere berezitasuna aitortuz, baloratu, eta ikasle bakoitzaren gaitasunen arabera haien parte hartzea sustatuz.

1.2 Eskola inklusiboa Euskal Autonomia Erkidegoan

Eskolak gizartearen parte direla kontuan hartuta, gizartean zein eskoletan, aniztasunari nola erantzun behar diogun zehazten du inklusio kontzeptuak. Horretarako, eskola inklusiboa deskribatzeko alegia, alderdi asko kontuan izan behar ditugu. Izan ere, eskola inklusiboa sare bat da, hezkuntza berri bati eta guztiontzako eskola bati eusten diona. Horren ondorioz, helburuak lortzeko zenbat eta alderdi gehiago jardun, gero eta sendoagoa izango da eskola inklusiboa.

Gainera, hezkuntza-inklusiorekin konprometituta den zenbait egile daude eta haiek postulatutako informazioaz baliatuko naiz eskola inklusiboa zer den azaltzeko: *“haur eta gazte guztiak hezkuntzara irits daitezen bermeak ematen dituen da eskola inklusiboa; baina, edonola ere, ahotan darabilgun hezkuntza hori ez da edonolako kalitatezko hezkuntza-sistema bat baizik, denei aukera-berdintasuna, justizia eta ekitatea bermatzen diena”* (Ainscow, Booth eta Dyson, 2006; Echeita eta Duk, 2008, Eusko Jaurlaritzan, 2014, or. 43).

Eskola inklusiboak gaur egungo geletan aurkitzen duen aniztasuna errespetatzen du, bertan, bizitzen den ezberdintasun hori guztien ikasketari laguntzeko baliabide aberasgarri gisa erabiliz. Bestalde, eskola inklusiboa kalitatezko hezkuntza lortzea du helburu eta horretarako, ekitatea eta bikaintasuna ezinbesteko baldintzak bihurtzen dira. Hezkuntza bikaintasunaren aldetik, ikasle bakoitzaren garapen maila altua lortzeko diseinatuta dago, eskubide eta betebeharrak osoak dituzten herritarrek parte har dezaten (López-Vélez, 2018).

Hala ere, hezkuntza inklusiboan ekitatea ere nabarmentzen da ekitaterik gabeko hezkuntza ez baita inoiz kalitatezkoa izatera ailegatuko (Marchesi eta Martín, 2014, López-Vélez-n, 2018). Hori dela eta, hezkuntza inklusiboaren helburua ikasle guztien garapen maila handiena lortzea da, bere ezaugarri indibidualak kontuan hartu gabe. Gainera, ekitate

honetan, ikasle eta bere ezaugarri pertsonalak ez dira kontuan hartzen (generoa, jatorria, haien nortasuna, kultura, erlijioa, ama hizkuntza, etab.), bizi den lekuan eta ikasten duen zentroan, baizik (López-Vélez, 2018).

Bestalde, Heziberri dokumentuetan azaltzen den bezala (236/2015 DEKRETUA, 2016ko urtarrilaren 15a), eskola inklusiboak kalitatezko hezkuntza eta hezkuntza-aukera berberak eman nahi dizkie ikasle guztiei; horrenbestez, eskola inklusiboaren planteamenduan sartzen da aniztasun horren onarpen faltaz kontzientzia hartzea, genero-arrazoiengatik gizarte-presioez eta bazterketez jabetzea, eta diskriminazio-egoerak erregulatzea (Eusko Jaurlaritzak, 2016, or. 54).

1.3 Aniztasuna eskola inklusiboan

Heziberri 2020ko hezkuntza-ereduan islatzen den bezala, hezkuntza jardueretan, aniztasunari aurre egiteko bi modu hartu behar dira aintzakotzat: erantzun positiboa, batetik, gizaki guztiok garen bezalakoak izateko dugun eskubiderekin lotua; eta negatiboa, bestetik, bazterketa eta desberdintasun egoera ugariren kausa dena. Jakina denez, bi aukera horietan, baliotsuena aniztasun positiboa da. Gainera, gizarte-talde guztiak anitzak izaten direnez, ikasteko eta hobetzeko aukera ematen digu (Eusko Jaurlaritzak, 2014, or. 45).

Bestalde, hezkuntza inklusiboak aniztasunaren adierazle guztiak hartzen ditu aintzat: kultura-aniztasuna, gaitasun-aniztasuna, sexu-joenen aniztasuna, genero-aniztasuna eta baliabide sozio-ekonomikoen aniztasuna (Eusko Jaurlaritzak, 2014, or. 45). Izan ere, aipatutako aniztasun-mota horiek ardatz nagusi baten inguruan zentratu behar dira, hau da, justizian. Gaur egun Hezkuntza-eredu Pedagogikoaren Markoan gizakien artean dagoen aniztasunarekin tentuz jokatu behar da (Eusko Jaurlaritzak, 2014, or. 46). Esan bezala, horixe da, hezkuntza sistemen erronka handiena, eta horretan jakina, denek hartu behar dugu parte. Gaur egun ezagutzen ditugun aldaketa esanguratsu horietatik, egun batean, pausu txikiak emanez hasi ziren. Hori dela eta, nik diseinatutako proposamen didaktikoan, adierazle guzti horietatik, gaitasun-aniztasuna soilik landuko da. Baina zer da gaitasun-aniztasuna?

Gaitasun-aniztasunari dagokionez, edozein pertsonak testuinguruaren arabera, baliteke halako gaitasunik izan ala ez. Eskola inklusiboak bere proposamena, estrategiak eta testuinguruak aberastu behar ditu, edozein motatako neska-mutilak, beren burua eta haien gaitasun maila gorenean ahalik eta gehien garatzeko gai izan daitezen.

Berriazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak garaiz hautemateko mekanismoak ezarri behar dira ikastetxeetan, honako ikasle hauek banakako hezkuntza-arreta behar baitute, ondorengo baldintza hauetakoren batengatik (236/2015 DEKRETUA, orr. 31-32):

- ✓ Desgaitasunen bat edo jokabide-nahaste larriak dituztenek.
- ✓ Ikasteko zailtasunak dituztenek.
- ✓ Gaitasun intelektual handiak dituztenek.
- ✓ Hezkuntza-sisteman berandu sartu direnek.
- ✓ Egoera pertsonal edo eskolaldi bereziak izan dituztenek.
- ✓ Desberdintasun sozialak pairatzen dituztenek.
- ✓ Arreta-faltagatik eta hiperaktibitateagatik desoreka dutenek.

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumean zehazten den bezala, aniztasunari erantzuteko neurrien aldetik, honako hauek ezarri dira (236/2015 DEKRETUA, or. 31-32):

- ✓ Hezkuntzako esku-hartzeak ikasleen aniztasuna errespetatu behar du.
- ✓ Hezkuntza-premiak asetzea izan behar du xede, ingurune normalizatu eta inklusibo batean.
- ✓ Berriazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleentzat garaiz hautemateko mekanismoak ikastetxeetan ezarri behar dira.
- ✓ Espezialitateko irakasleak eta profesional kualifikatuak ezartzea, gelan bi irakasle batera aritzea, metodologia-aldaketak ikasgelako harremanak aberasteko, curriculumak aberastea, eskolatzeko-aldia malgutzeko, besteak beste.
- ✓ HPB-dun ikasleen ebaluazio-irizpideetatik eta edukietatik aldentzen diren egokitzapenak ezarri behar dira.
- ✓ Gaitasun handiko ikasleen eskolatzeko malgua izatea, bere ikaskuntza-eritmoa egokitzeko.

Aurreko guztia laburbiltzeko asmoz, argi geratu behar da aniztasunari erantzuna emateko, familiaren, profesionalen eta irakasleen arteko koordinazioa eta kolaborazioa ezinbestekoa dela.

1.4 Hezkuntza Premia Berezien egoera Euskal Herrian

Proposamen didaktikoa aurkeztu aurretik eta gerora, hau ondo ulertzeko asmoz, garrantzitsua izango litzateke Euskal Herriko egoeraz oroitzea eta Arabako azken urte hauetako egoera aztertzea.

Horretarako, lehen esan bezala, Euskadin Eskolako Kontseiluak 2013tik 2015ra sortutako "La Educación en Euskadi. Informe 2013-2015" txostenean oinarrituko naiz, Arabako zein

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) datuak jasotzen duena. Era berean, aztertutako datuak, 2014 eta 2015 urte artekoak izan dira.

Informearen arabera, 2014tik 2015ra 6.960 HPB-dun ikasle zeunden 2 urtetatik batxilergora arteko etapen artean, hau da, ehuneko 2,19. Datu hauek kontuan hartuta, aurreko urtearekin konparatuz, azken urtean % 0.15eko hazkundea egon da.

Bestalde, datuen bilakaera ezgaitasunaren arabera aztertuz gero (1.irudia), ehuneko hazkunde esanguratsuenak desgaitasun motorrean aurkitzen dira, % 16a izanda.

1.irudia: Hezkuntza Premia Berezidun ikasleen bilakaera 2013tik 2015ra.

	2013-2014	2014-15	Δ último curso
Discapacidad auditiva	359	398	10,9%
Discapacidad motora	682	791	16,0%
Discapacidad intelectual	2.021	2.070	2,4%
Discapacidad visual	209	215	2,9%
T. Generalizados desarrollo	1.645	1.904	15,7%
T. Grave de conducta	1.236	1.337	8,2%
Pluridiscapacidad	234	245	4,7%
Total alumnado con NEE	6.386	6.960	9,0%

Oharra: Eusko Jaurlaritzak egindako txostena: "La Educación en Euskadi. Informe 2013-2015" (or. 29).

Oro har, ikusten den bezala, urteak aurrera egiten duten heinean, gero eta hazkunde gehiago dago hezkuntza berezian. Hori dela eta, Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen beharrei erantzuteko, gaur egungo eskoletan gero eta laguntza eta proiektu berriak eskaintzen dituzte. Aldi berean, laguntza teknikoen, kontseilu orientatzaileen eta irakasle-aholkularien laguntza izaten dituzte.

1.5 Gorputz Hezkuntza, Inklusioa lantzeko bidea

Euskal Herriko eta konkretuki Arabako egoera behin aztertuta, gaur egungo eskoletan hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen ehunekoa eta egoera ezagutu ditugu. Hori dela eta, egoera horiek ikasle guztiekin lantzeko, Gorputz Hezkuntzako (GH) ikasgaia erreferentzia gisa hartuko dugu. Horretarako, Gorputz Hezkuntza inklusioa lantzeko bide bezala hartuz, funtsezkoak diren zenbait galderen erantzunaren bitartez, ikasgaiaren garrantzia azpimarratzea izango da galdera honen helburua.

Hasteko, hainbat galdera planteatu beharko genituzke eman beharreko erantzunak esanguratsuak izateko. Gaur egungo eskoletan Inklusioa zer den irakasten da? Ikasleek hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen sentimenduak ezagutzen dituzte? Eskoletan G.H-ko ikasgaien inklusioa lantzen da modu praktiko batean?

Orain arte esan dugun bezala, inklusio kontzeptua integrazio kontzeptutik haratago doan pausu bat da (Shaeffer, 2008, Sánchez-Teruel-n, 2013). Hori dela eta, ikasgeletan sortutako ikuspuntu horiek, gizartearen eremu ezberdinetara hedatzea egokia izango litzateke. Batez ere, eskolek gai honi buruz egiten dituzten ahalegin guztien ondorioz, gizarte-oihartzuna handiagotu beharko litzatekela, eskoletan ikasitako guzti hori gizartean eragina izateko (Sánchez-Teruel, 2011).

Hori dela eta, inklusioa gaur egungo gizartean eta eskoletan lantzen den moduarekin apurtzeko, Gorputz Hezkuntza ikasgaia abiapuntu gisa hartuko dugu azaleratzen diren emozioen bitartez, inklusiorantz bideratzeko. Hori dela eta, **Gorputz Hezkuntza** emozioz betetako ikasgai bat denez, **inklusioa** modu praktiko batean landuko da zer sentitzen den bizitzeko eta **emozioak** inklusioan eta Gorputz Hezkuntzan daukan eragina ulertzeko. Hiru termino hauen batura eginez, Gorputz Hezkuntzan azaleratzen diren emozioen bidez, inklusioa lantzeko modu ezberdin bat bezala ulertuko dugu.

Era berean, aniztasuna haurtzaroan lantzeko beharra dago (Robles eta Sánchez-Teruel, 2011, Sánchez-Teruel-n, 2013). Horrela, hezkuntza inklusiboko proposamen bitartez, inklusioa eta ikasgelako klima positiboa sustatu egingo da.

1.6 Kirolak dituen onurez baliatu inklusioa lantzeko

Kirolak inklusio soziala sustatzeko eta gaur egungo gizarteek behar dituzten konpetentziak eta baloreak irakasteko, aukera berdinetatik eta joko garbitik abiatuz, diskriminaziozko era guztiei aurre egin ahal izateko beharrezkoa den faktore bat da (Bokoval, 2014, Cansino-n, 2016). Lehen aipatu den bezala, baztertze sozialeko egoerak desagerrarazteko kirola funtsezko tresna da.

Gaur egungo gizartean dauden zailtasunak kontuan hartuta, gizarte inklusibo bat eratzea ezinbestekoa da. Kirolaren bidez, baloreak eta konpetentziak garatzen dira. Nolabait, esan dezakegu kirol praktikek oso errealitatearen hurbileko egoeretan jokatzeko aukera ematen digutela, talde lanaren bitartez, arauak zein kideei errespetatuz, besteak beste. Kirolak dituen balore oinarrizko horietatik, jolas zuzena, kooperazioa, partekatzea eta errespetua bezalakoak dira garapena lortzeko beharrezkoak direnak (Cansino, 2016).

Kirolak pertsonak hezitzen ditu, sentsibilizazioa handituz eta bakoitzaren gorputza errespetatuz. Kirol praktikak ondo eratuta, errespetua, komunikazioa, kooperazioa, enpatia bezalako baloreak irakasten dira. Bide egokia da baloreak lantzeko, era dibertigarri eta parte-hartzaile batean. Gainera, harreman sozialak eratzeko eta gizabanakoen eta taldeetako komunikazioa hobetzen laguntzen du. Honi lotuta, esan beharra dago kirol egokituaz eta kirol inklusiboaz hitz egiten dugunean, gauza bera ez direla kontuan hartu beharko litzatekeela. Alde batetik, desgaitasuna duten pertsonak soilik kirola praktikatuz gero, kirol egokitua deritzo. Pertsona hauek duten desgaitasuna kirola egiteko oztopatuz gero, baina desgaitasunik duten pertsonekin praktikatzen badute, kirol inklusiboaz hitz egiten dugu (Cansino, 2016).

Azken urte hauetan Gorputz-Hezkuntza inklusiboari arreta handia jarri zaio eta heziketa inklusiboko indarreko heziketa-modeloaren eragina jaso du. Heziketa-modelo honetan Hezkuntza Premia Berezidun ikasleek Gorputz Hezkuntzako klaseetan parte hartzea du funtzioa, beharrezko egokitzapenak eginez HPB-dun ikasleek zein beste guztion parte-hartzea bermatzeko. Hain zuzen ere, Gorputz Hezkuntza zein kirola, gaitasun “generikoak” eta ahalera kognitibo eta fisikoa garatzen laguntzen dute. Heziketa-sistemak gizabanakoaren ongizate fisiko eta mentalaren eraikuntzaren oinarritzko elementuak dira, esaldi latindar zaharrak aipatzen duen bezala “mens sana in corpore sano” (Gorputz osasuntsu bat buru osasuntsu batean) (Cansino, 2016).

1.7 Inklusioa ulertzeko gorputz hezkuntzaren bidezko emozioen lanketa

Zer erlazio dago emozioen eta Gorputz Hezkuntzako ikasgaiaren artean? Galdera honekin bat datozen beste batzuk lantzea eta aztertzea da atal honen helburua. Gainera, emozioen eta Gorputz Hezkuntzaren arteko erlazioa gero eta estuagoa da.

Hasteko, “emozio” terminoa aztertzen badugu, mugimendua daramala nabarmentzen dugu. Latinetik dator “*emositio, emotionis*”, hau da, “*emovere*” aditzetik eratorritako hitza da. “Mugimenduan jartzea” adierazten du (Latinezko hiztegia) Hori dela eta, “mugimendua”, hau da, Gorputz Hezkuntzako ikasgaia eta “emozioak” erabat lotuta daude. Horregatik, Gorputz Hezkuntzako ikasgaia eskaintzen dituen aukerez baliatuz, gorputz fisiko eta mentalaren arteko oreka egokia lor dezakegu. Aldi berean, gaitasun emozionalaren eta trebetasun sozialen bidez, emozionalki garatzeko aukera daukagu (Pellicer, 2014).

Daniel Golemanen adimen emozionalei buruzko liburuak, adimen emozionala honela definitzen du: gure sentimenduak ezagutu eta erabiltzeko edo besteen sentimenduak interpretatzeko aukera ematen digun trebetasuna da (Ozamiz, 2017). Liburuan gainera,

adimen emozionalari aitortu zaizkion trebetasunei begira, hainbat helburu aipagarri daude. Lehenik eta behin, hurrek norberaren emozioak eta horien adierazpenaren kontzientzia hartu behar dituzte, hau da, emozioak sailkatzen eta diskriminatzen ikasi behar dute, baita besteengan emozioak identifikatzen ere.

Bestalde, emozioak auto erregulatzen ikasi behar dute, ondorio negatiboak saihesteko. Gainera, bizitzan jarrera positiboa hartzearen garrantziaz ikasi behar dute, nor bere burua ezagutzen duen bitartean. Beraz, emozioak azaleratzen direnean eta sortzen duten “horrez” baliatzeko, lehenengo eta behin ondo ulertu behar ditugu. Horretarako, empatia zer den ulertu behar da, gorputzaren mintzaira ezagutzuz.

Adimen emozionalak nortasunaren ezaugarri batzuk biltzen ditu bere baitan: empatia, haserrearen kontrola, gizarte-trebetasunak, sentimenen adierazpena, ulerkortasuna, besteak beste. Emozioak barne-egoera edo afektuak dira eta pertsonak esperientziei aurre egitean bat-batean agertzen dira. Sentimenduak, berriz, denboran luzatzen diren emozioak dira, bihotzondoak edo zirrararen batek eragiten duenak (Punset 2005 Ozamiz-en, 2017).

Oso garrantzitsua da emozioei izena jartzea, haien kudeaketa errazagoa izateko. Horretarako, ikasleekin emozioen hiztegia landu behar da eta Gorputz Hezkuntzaren bidez, emozio hauek azaleratzen direnean, teoria praktika lantzeko aukera paregabea da. David Myers-ek esaten duen bezala, emozioen artean, hauek dira aipagarrienak: haserrea, beldurra, poza, ezustekoa eta tristura. (Myers, 2006 Ozamiz-en, 2017).

Halaber, Goleman psikologoak azaltzen duen bezala, emozioak eta adimena bateragarriak dira, baina horretarako orekatuta egon behar dira emaitza arrakastatsuek lortu ahal izateko (Goleman, 1996 Ozamiz-en, 2017). Gainera gure gorputza azaleratzen dituen emozio horiek gure egunerokotasunean sortzen diren arazoei aurre egiteko, kudeatzeko gai izan behar gara.

Aurreko guztia laburbiltzeko nahian, eta Vizcarrak eta Muruak (2014, or. 31) esaten dutena erreferentzia eginez, “Premiak, sentimenduak eta emozioak islatzeko ispilua da umearentzat bere gorputza”, beraz Gorputz Hezkuntzak umeak bere gorputza ezagutzea du helburu. Hori dela eta, bakoitzak ezagutzea lortzeaz gain, gainontzekoak ere ezagutzea lortuko da eta honela errazagoa izango da norberaren eta besteen ongizatea bermatzea. Honekin bat, hurrengo puntuetan, ikerketa nola burutu zen eta egindako ikastetxean aurkeztuko da.

2. TESTUINGURUA

Nik diseinatutako proposamen didaktikoa aurkeztu baino lehen, ikerketa aurrera eraman dudan eskola aurkeztuko dut. Ikastetxea Gasteiz hirian kokatuta dagoen irakaskuntza-kooperatiba bat da, itunpeko ikastetxe laikoa izanik. Bertan, familiak eta langileak biltzen ditu, ikastetxearen kudeaketan guztiek parte hartzen dutelarik. Ikastetxearen hezkuntza-eskaintza Haur Hezkuntzatik Batxilergora arteko eskola-etapak barne biltzen ditu (Ikastetxearen webgunea).

Halaber, ikastetxea bereziki pertsonak integratzen eta haien beharrak asetzen ahalegintzen da, haien artean berrikuntza eta sormena sustatuz. Gainera, pertsona kritikoak, begirunetsuak, solidarioak, arduratsuak eta autonomoak hezteaz ere arduratzen dira.

Horrez gain, eskolak Gasteizko erreferentziazko ikastetxea izan nahi du, izan ere, giza kalitate handiko irakasleak eta ikasleak eta hezkuntza-eskaintza integrala ditu, ikasle guztien ongizatea eta inklusioa lortzeko. Eskolak aniztasunari eta inklusioari trataera ematen dio eta Hezkuntza Premia Berezidun (HPB) ikasleei laguntza esleitzen diete. Horretarako, laguntza ikasgelak eta Hezkuntza Bereziko ikasgelak eskuragarri dituzte.

Esan bezala, eskola ikasle kopuru handia duenez, aniztasun handia dago. Horren ondorioz, bazterkeria gertatzen den egoerak aurki ditzakegu. Gainera, iaz, Gorputz Hezkuntzako Minorraren praktikak ikastetxe honetan egin nituenez, Lehen Hezkuntzako (LH) zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleen behaketa zuzena egiteko aukera izan nuen. Horretaz gain, nire ikaskideak, Anne Bengoak (2018) ikaskuntza zerbitzuari eta eskola inklusiboari buruz egindako Gradu Amaierako Lanaren ikerketaz baliatuz, ikastetxearen inklusioaren inguruko testuingurua eta egoera azalduko dut.

2.1 Ikerketaren justifikazioa

Gradu Amaierako Lana aurrera eramateko bi oinarritik abiatu naiz. Alde batetik, praktikaldian LH-ko eta DBH-ko ikasleei egindako behaketaren bidez. Bertan, 6 urtetik 14 urtera arteko umeein egoteko aukera izan nuen. Talde bakoitzak astean behin klasea zuenez, aurrera eramaten zituzten ekintzak errepikatzen ziren, hori dela eta, taldearen arabera, jarrera eta egoera desberdinak behatzeko aukera izan nuen. Behin datu horiek ezagututa, klasean gertatzen ziren baztertze egoerei arreta jarri nien. Behaketa hobeto burutzeko, eguneroko bat egin nuen eta bertan, astean gertatzen ziren egoera esanguratsuenak plazaratzen nituen, geroko prozesuarekin lotzeko asmoz.


Bestetik, Anne Bengoak (2018) ikaskuntza zerbitzuari eta eskola inklusiboari buruz egindako Gradu Amaierako Lanean, nire praktikaldia egin nuen ikastetxe berean aurrera eramanez zuen bere ikerketa, non LH-ko eta DBH-ko ikasleentzat, familientzat eta irakasleentzat zuzenduta zeuden galdeketak bertan burutu zituen. Hori dela eta, ateratako informazioa gehiegi zenez, ikerketan aritzeko, eta GrALaren zuzendari bera dugunez, azkenean Anne Bengoak (2018) LH-ko ikasleen inkestak aztertu zituen eta nik berriz, DBH-koak.

Nahiz eta diseinatutako proposamen didaktikoa LH-ko ikasleei bideratuta egonik, aztertutako emaitzak DBH-ko ikaslerenak izan dira. Alde batetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zeuden ikasleek, aurretik Lehen Hezkuntza etapa osoa bizi izan dutelako. Eta bestetik, adin horrekin, bizipen gehiago bizi izan dituztenez, ikasleek pentsamendu kritikoa eta heldutasun eta esperientzia gehiago dituzte. Hori dela eta, ikerketa aurrera eramateko, DBH-ko ikasleen galdekete bidez lortutako emaitzak aberasgarriagoak izango zirelakoan, DBH-ko ikasleen emaitzetan oinarritu nintzen.

Galdeketa dagokionez, esan beharra dago interneten bidez egin zela. Gainera, "irakurketa erraza" erabili zen, HPB-dun ikasleek zein beste guztiek galdeketei erantzuteko gai izateko. Ikasleen inkestak aldetik, hiru aukera besterik ez ziren: "si", "no" eta "no lo sé". Kasu guztietan adierazle bakoitzeko erantzun bakarra aukeratu behar zuten eta inkestak azkeneko galderan, ikasleek ikastetxeari buruz zuten iritzia libreki adierazteko aukera izan zuten: "¿Qué es lo que más te gusta de tu colegio? ¿Y lo que menos? (1. Eranskinen ikasleei egindako galdeketa agertzen da).

Hurrengo grafikoan, eskema moduan erabilitako prozedura metodologikoa azaltzen da:

1.grafikoa: lanaren prozedura metodologikoa



Oharra: Egileak egindakoa

2.2 Lortutako emaitzak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 276 ikasleek parte hartu zuten egindako galdeketan. Jarraian, ateratako emaitzetatik, grafiko deigarrienak agertuko dira, ikerketaren emaitzak zehatzago aztertu ahal izateko. Batetik, ikasleen iritzia ezagutu nahian, inkestaren azkeneko galderan lortutako erantzun deigarrienak aztertuta agertuko dira. Bestetik, behaketa zuzenean aztertutako guztia agertuko da. Amaiera bezala, ikastetxearen panoramika aztertuko da.



2.2.1 Ikasleen inkestaren emaitzak:

Ikasleei egindako galderak eta lortutako emaitzak honako hauek dira (*gainerako grafikoak 2. eranskinean txertatuta agertuko dira*).

- Egindako galdeketatik 276 ikasleen erantzunak jaso dira. 1ºDBH 86 ikasle, 2ºDBH 80 ikasle, 3ºDBH 56 ikasle eta 4ºDBH 54 ikasle. Horietatik, 140 neska eta 136 mutilak dira.

- **Nire ikastetxean nahi dudan guztia lor dezaket.**

Adierazle honi dagokionez ikasleen artean ez da adostasun handia ikusten; izan ere, %12k “bai” aukeratu du. Bestalde, **%55ak “ez” aukeratu du, eta oso deigarria da DBHko ikasle erdia baino gehiagok ez dute uste nahi dutena lor dezaketela.** Azkenik, %33k “ez dakit” aukeraren alde egin du. Horregatik ikus daiteke orokorrean ikasleak ez daudela guztiz ados baieztapenarekin.




- **Nire ikastetxean edozein arazori aurre egin diezaioket.**

Baieztapen honetan ikusten den bezala, **“bai” eta “ez”** aukeratu duten ikasleen artean **ez dago alde handirik.** %39k “bai” aukera aukeratu du eta %37k “ez” aukera. Azkenik, %24ak “ez dakit” aukeraren alde egin du. Aipagarria da “ez” eta “ez dakit” ehunekoen batura egitean lortzen den emaitza, hau da, DBHko

ikasleen %51ak ez du bere burua edozein arazori aurre egiteko gai ikusten eta horrek arazoak ekar ditzake.

- **Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak edo oso emaitza onak lortzen dituzten ikasleak kritikatzeko dituzten ikasleak kritikatzeko dituzten ikasleak** (grafikoa 2. eranskinean).

Ikasle **gehiengoa (%96)** haien ikaskideak **ez dituztela kritikatzeko** adierazi egin du. Bestetik %2ak kritikatzeko dituztela onartu egin du eta azkenik, %2ak ez dakiela erantzun du.




- **Irakasleek guztiok asko ikasten dugula uste dute.**

Grafikoan ikusten den bezala, ikasleen %38 ados dago, bitartean %20k horrela gertatzen ez dela aitortu du. Azkenik, gainontzeko **%42ak ez dakiela** erantzun du.

- **Nire klasekideak lagundu egiten ditut eta esaten dutena eten gabe entzuten dut.**

Adierazle honi dagokionez, haurren **%87 alde** agertu da eta haien klasekideak lagundu eta entzuten dituztela baieztatu dute. Bestetik, ikasleen %10ak, ehuneko txikiagoa izan arren, zalantzak ditu eta azkenik, %3a ez dago baieztapenaren alde.

- **Normalean taldeka lan egiten dugu eta horrela lan egiten dugunean guztion jakintzetara moldatu egiten gara** (grafikoa 2. eranskinean).




Adierazle honetan **“bai”** aukeratu duten ikasleen **%58a** da eta **“ez”** %23k aukeratu du. Azkenik, %18k **“ez dakit”** aukera erantzun du.

- **Taldean lan egiterakoan lanak banatu egiten ditugu eta elkarrekin ikasten dugu.**

Ikasleen **%58** adierazlearen **alde agertu da**, beste %27 berriz, “ez” adierazlearen alde agertu da. Azkenik, ikasleen %15k “ez dakit” aukeratzearen alde egin du.



6.grafikoa: Taldean lan egiterakoan lanak banatu egiten ditugu eta elkarrekin ikasten dugu.




Oharra: Egileak egindakoa

- **Besteei ikasi dudana azaltzen ikasi dut.**


Baieztapen honetan ikasleen %78k “bai” aukeratu du, bestetik “ez” %10 izan da. Azkenik, “ez dakit” %12k aukeratu du (*grafikoa 2.eranskinean*).

- **Guztiok elkarrekin ikas dezagun laguntzen dut.**

Ikasleen %60 ados dago adierazle honekin, %15 berriz, kontra adierazten da eta azkenik, %25k “ez dakit” erantzuna aukeratu du (*grafikoa 2.eranskinean*).



7.grafikoa: Talde jarduerak asko gustatzen zaizkit.



Oharra: Egileak egindakoa

- **Talde jarduerak asko gustatzen zaizkit.**

Baieztapen honetan ikasleen **%64k ados** dagoela adierazi du. Bestetik, ikasleen %16k baieztapenarekin ez dagoela ados adierazi du. Azkenik, %20k ez dakiela zer erantzun adierazi egin du.

- **Nire irakasleekin batera nire klasekideak laguntzen ditut beharrezkoa denean.**



Ikasleen **%64 ados** dago baieztapenarekin, bestetik, ikasleen %17 adierazle honen kontra agertzen da. Azkenik, %19k “ez dakit” aukeratu du (*grafikoa 2.eranskinean*).

- **Zerbait berria ikasten dudanean gehiago ikasteko gogoak sortzen zaizkit.**

Ikasleen **%54** zerbait berria ikasten duenean gehiago ikasteko gogoak sortzen zaizkiola baieztapenarekin **ados** dago. Bestetik, %27k horrela ez dela adierazi egin du. Azkenik, %19k ez dakiela adierazi du (*grafikoa 2.eranskinean*).

➤ **Klasekideekin nire arazoak nola gainditu ditudan partekatzen dut.**

Baieztapen honetan ikasleen **%61ek baietz** erantzun du. Ikasleen %21ek berriz, ezetz erantzun du. Bukatzeko, %18k “ez dakit” erantzun du.



➤ **Elkarrekin ikaskuntza arazoak konpontzen ditugu.**

Baieztapen honetan, **“bai”** aukeraren alde egin duten ikasleen **ehunekoa 64a** da. Bestetik, “ez” %16k aukeratu du eta azkenik, %20k ez daki zer erantzun.

Aurreko guztia aztertu eta gero, orokorrean ikasleek arazoak izanez gero, haien bakarrak konpontzen dakitela, eta haien kideekin esperientziak partekatzen dituztela. Gainera, taldeka lan egitea gustatzen zaie baina gustuko duten baino gutxiagoa lan egiten dute. Ikusi dugun bezala, ikasleek gero eta pentsamendu kritikoagoa daukate eta gehiengoek, zailtasunak dituztenei edota ekintzak ondo egiten dituztenei ez diete kritikatzeko.

2.2.2 Galdera irekiari emandako erantzuna

Esan bezala, inkesten azkeneko galderan, ikasleek ikastetxeari buruz zuten iritzia libreki adierazteko aukera zeukaten. Horren ondorioz, DBHko ikasleei egindako galdeketatik, erantzun ezberdinak lortu dira. Alde batetik, bere eskolagatik gustuko ez dituzten ekintzak eta bestetik, gustuko dituzten ekintzak aipatzen dituzte. Horietan oinarrituta, hainbat erantzun oso deigarriak jaso izan dira. Lehenik eta behin, ikasleek bere **eskolan gustuko ez duten** ekintzekin hasiko gara. Hona hemen gehien hunkitu nauten iritziak:

DBHko 10 ikaslek, desgaitasuna duten pertsonen berdintasuna ez zaiela gustatzen erantzun eta horrela adierazi dute: *“La igualdad a discapitados”*

Beste aldetik, aurreko iruzkinarekin konparatuz, beste ikasle batek, guztiz iritzi kontrajarria dauka eta horrela adierazi egin du: *“La gente que se mete con los discapacitados o con otras personas”*. Ikusten dugun bezala, inklusioari buruzko ezagupenak dituzte eta horren ondorioz, bere eskolan gertatzen diren bazterkeria egoerak ez dituzte gustuko. Gainera, beste ikasle batzuk honekin lotuta, honako iruzkin hau adierazi zuten: *“Que se le valore menos a una persona por ser diferente”*.

Halaber, 20 ikaslek iritzi oso deigarria erantzun zuten inkestetan. Noizbehinka, ikasleek irakasleek duten parte-hartzea eskasaren kontra daude. Gaur egungo hezkuntza-sistema kritikatzeari aparte, irakasleek klaseak aurrera eramateko erak kritikatzeko dituzte ere, hau da, garrantzi gutxi ematen diotela haien irakaskuntza metodoak eraginkorrak diren ala ez jakiteari, ikasleek zerbait ikasi edo ulertu duten kezkatu gabe. Hona hemen ikasleek adierazitakoa: *“En ocasiones la poca implicación del profesorado sobre las dudas del alumnado y la poca importancia que le dan a saber si están enseñando de forma correcta, sin preocuparse de si el alumno ha aprendido algo”*.

Esan bezala, gaur egungo hezkuntza-sistemak ikasleengandik kritika asko jasaten du. Horren ondorioz, irakasteko metodo berritzaileak praktikan ez dituztela jartzen adierazten dituzte. Gainera, irakasleen inplikazioa eta empatia faltan sumatzen dituzte. Honen harira, aurka dauden ikasle hainbat iruzkin aurkitu nituen:

- *“No se innova todo lo que debería en los métodos de aprendizaje”*.
- *“El método de enseñanza”*.
- *“Los profesores no se implican en los problemas ni en explicar y tampoco muestran ningún tipo de empatía hacia al alumnado”*.
- *“El sistema educativo, el profesorado, no se toma en cuenta la decisión ni se respeta la opinión de los alumnos en determinadas ocasiones, las actividades y estas encuestas”*.
- *“El profesorado, el sistema educativo, no respetan las opiniones del alumnado, no tienen en cuenta el esfuerzo ni la actitud, algunos profesores no cumplen los horarios, las normas en general”*.

Beste aldetik, DBHko ikasleek bere **eskolan gustuko dituzten ekintzetatik** honako iruzkin deigarriak jaso izan dira. Ezberdintasun nabarmenak ikusten dira gustuko eta gustuko ez dituzten ekintzen artean.

Gustuko dutenak direla eta, inklusioan oinarritutako hainbat iritzi deigarriak agertu dira. Hona hemen ikasle batek esandakoa: *“el aceptación de las personas con un ritmo de*

aprendizaje más lento”. Ikasle honek gizaki bakoitzaren erritmoa errespetatu behar den alde dago; hain zuzen ere, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak. Gainera, honekin lotuta, beste ikasle batek zailtasunak dituzten ikasleek inklusioan oinarritzen da, horrela adierazi zuen: *“La forma en la que se incluye a gente con dificultades o que le cuesta más hacer determinadas cosas”*.

Bestalde, aurreko iruzkinekin lotura duten beste hainbat ikasle honako iritziak eman zituzten: *“Hay profesores que de verdad intentan entender los problemas y dificultades de cada uno e intentar ponerles solución o ayudarte.”* Ikasle honek esaten duen bezala, irakasle bakoitzak desberdinak dira, hau da, izaeraren arabera, irakasle batzuk hurbilagoak izaten dira eta horren ondorioz, eskaintzen dituzten laguntzak zabalagoak dira.

Gainera, ikasleei asko gustatzen zaie eskolan ikasleek artean dagoen adiskidetasuna eta denek artean ikastea. Honen ondorioz, 33 ikasleek honako iritzia eman dute: *“Me gusta el compañerismo y el buen rollo que hay entre los compañeros, aprender de ellos y ayudarnos entre todos”*.

Bukatzeko, 26 ikasleek ikaskuntza berrien alde jotzen dute; honela adieraziz: *“Aprender cosas que no tenía ni idea”*. Ikaskuntza berriak ikastea sustatzera, ikasleek gogoak pizten dituzte. Hori dela eta, nire proposamen didaktikoari hasiera emateko, egokia iruditu zait azken iruzkin hau erreferentzia gisa hartzea.

2.2.3 Behaketa zuzena

Esan bezala, azken praktikaldian, Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin aritu nintzen soilik eta LHko zein DBHko ikasleekin egoteko aukera izan nuen. Klase bakoitzarekin astean behin elkartzeko ginen eta mailaren arabera, ekintza berdina burutzen ziren. Hori dela eta, klase eta talde bakoitzaren ezberdintasunak eta jokabideak behatzeko aukera izan nuen.

Praktikaldia iraun zuen hiru hilabete horietan, nik diseinatutako jolas kooperatiboak eta kolaboratiboak unitate didaktiko bat aurrera eramanez LHko 5. mailan. Saio bakoitzean gertatzen ziren egoera esanguratsuenak irudikatzeko, egunerokoa osatu nuen, eta bertan GHko saioetan gertatzen ziren arazoak edo egoera deigarrienak idazten nituen. Hona hemen egunerokoaren taularen adibidea:

1. taula: Egunerokoaren taula

Data:	Maila:
Gertaeraren deskribapena:	
Emozioen deskribapena:	
Esku-hartzea:	
Esku-hartzearen emaitzak:	

Oharra: Egileak egindakoa.

Sekuentzia didaktikoa aurrera egiten zen heinean, gero eta lehiakortasun eta oztopo gehiago agertzen ziren. Emaitzetan ikusi dugun bezala, ikasleek taldeka lan egitea gustuko dute, baina aukeratzekotan bakarrik lan egitea aukeratuko zuten. Kasu honetan, 5.mailan HPB-dun 3 ikasle zeunden eta esan bezala, erronka kooperatiboak burutzeko, ikasleak taldeka jarri behar ziren. Hori dela eta, ikasleek taldeak egiten zituztenean, hiru ikasle hauek hiru talde ezberdinetan jarraitzen ziren. Egia da, gaur egungo ikasleek gero eta errespetu gehiago dauzkate HPB-dun ikasleekin lan egiterako orduan, normaltasunez ikusten dutelako, baina ezagutzen dugun bezala, teoriar polita iruditzen diren ekintzak, praktikara eramanda zailak ikusten dira.

Izan ere, banaka lan egin behar genuenean, lehiakortasuna agertzen zen, baina hori aurre egiteko, askoz errazagoa zen bakarka aritzea taldean baino, bakoitzak gure gaitasunak zeintzuk ziren ezagutzen genituelako. Taldeka berriz, gure kideen menpe egon behar ginen eta guk nahi ditugun gauzak ateratzen ez zirenean, arazoak agertzen ziren. Egoera horiek, praktikaldian zehar behin eta berriz ikusi nituen. Gainera, kooperazioan eta elkarlanean aritu behar zutenean, lehiakortasun puntua beti agertzen zen eta horren ondorioz ikasleen partez, honako komentario desatseginak entzun izan nituen:

- *“Beti haiekin tokatzen zaigu”*
- *“Ez dut nahi jolastu, galduko dugu”*
- *“Haiekin jartzen garenean beti galtzen dugu, taldea atzeratzen dute”*

Halaber, behaketan ikusi nuen bezala, HPB-dun ikasleek GHko ikasgaiari, hezitzaileen laguntza zuten beti. Gainera, ikasgaiari talde lanean aritzea funtsezkoa zen ekintzak aurrera ateratzeko eta ikasleei beharrak zituzten ikasleekin lan egitea kostatzen zitzaien. Ikusi den bezala, plazaratutako iruzkinetan, ikasleek taldea geldiarazten zutela adierazten dute, besteak beste. Egia da ikasleek haien artean eta bereiziki HPB-dun ikasleekin errespetuz

aritzen zirela eta ahal zuten heinean laguntzen zietela, baina komentario eta pentsamendu horiek haien buruetan egoten ziren beti. Izan ere, ikasleek gero eta helduagoak direnean, orduan eta lehiakortasun gehiago sustatzen da.

2.3 Ikastetxearen panoramika

Laburbilduz, galdeketetan ateratako emaitzak aztertuta eta praktikaldian behatutakoa bat eginez, orokorrean ikastetxe honetako ikasleria haien kideekin errespetuz aritzen da. Gainera, gero eta pentsamendu kritikoagoa dute eta HPB-dun ikasleekin gertatzen diren egoera desatseginak defendatzen dituzte. Beste batzuek berriz, egoera horiek kritikatzeko eta errespetatzen ez dituztenez, komentario desatseginak egiten dituzte. Hori dela eta, egoera eta komentario horiekin bukatu nahian, pertsonalki uste dut, aniztasuna eta inklusioa lantzeko modu berriak martxan jarri beharko lirakekeela, gaur egun ezagutzen ditugun arazoak beste modu batean ikusteko eta irtenbideak bilatzen ikasteko.

Halaber, emozioak mugitzen gaituelakoan nago. Hori dela eta, enpatia baloreak bezala erabiliz, ikasleek euren baitan esperientzia berriak sentituz eta biziz, benetako errealitatea ezagutzeko eta horren bidez, ulertzeko aukera izango dute. Gainera, jakintza falta izateak, jarrera desegokiak izatera bultzatzen gaituelakoan nago. Hori ez gertatzeko, gaur egun “arazo” bezala hartzen diren ekintzak landu beharko dira, guztiok jakintza batekin aritzeko eta “arazo” horiek bizitzako ezaugarriak bezala ikusteko. Hori dela eta, nire Gradu Amaierako Lanean, Lehen Hezkuntzako ikasleekin inklusioarekiko sentsibilizazioa landu nahian, Gorputz Hezkuntza eta Inklusioa batuz, praktikatzeko azaleratzen diren emozioen bidez, denok elkarrekin errespetuan bizitzen ikastea du helburu.

Hori dela eta, orain arte ikusitakoa hobetu nahian, lanaren hurrengo puntuan “Arin arin inklusioari ekin” proposamen didaktikoa aurkeztuko dut.

3. GORPUTZ HEZKUNTZA INKLUSIBOA LANTZEKO PROSAMEN DIDAKTIKOA

3.1 Justifikazioa

Inklusioa lantzeko era ugari dauden arren, Gorputz Hezkuntza ikasgaia abiapuntu hartuz jolas tradizionalen eta desgaitasuna duten pertsonentzako egokitutako kirolen bidez aurrera eramango da. Hori dela eta, inklusioa zer den ulertzeko eta euren buruan sentitzeko eta barneratzeko, GH praktikaren bitartez azaleratzen diren emozioen bidez baliatuko dira.

Proposamen hau Lehen Hezkuntzako 2.zikloko ikasleekin lantzeko diseinatuta dago, baina jarduerak 1.zikloko ikasleentzat egokituz gero, LHko ikasle guztiei bideratuta egongo litzateke. Adin horretan dauden ezaugarriei dagokionez, 2.zikloko ikasleak jolas

soziomotorean (8-10 urte) eta jolas estrategiko (10-12 urte) barruan kokatzen direla izan daiteke (Llorente, 2004).

Etapan honetan dagozkion ezaugarri berezienak hauexek dira: garapen motorrari dagokionez, gero eta arinago doa haurraren garapena, abilezia motorrak hobetzen dira (indarra, erresistentzia aerobikoa, abiadura, koordinaketa dinamikoa), eta espazio eta denborari buruzko ezagutzak osatzen dira. Garapen kognoszitiboari dagokionez, lanak esfortzua dakarrela ulertzen hasten dira. Gainera, haurrek ikasteko irrika dutenez, haien arreta areagotzen da eta gauzen zergatia ezagutu nahiko dute. Izan ere, pentsamendu kritikoagoa garatzen hasten dira eta errealitatea ulertzeko ahalmen gehiago dute. Azkenik, garapen afektibo eta sozialari dagokionez, haiengan konfiantza handiagoa dute, lehiakortasuna sustatzen da eta talde lanak eta sozializazioak aurrera egiten dute. Hasieran helduekin harreman estuak sortzen dituzte baina nerabezaroan, krisiak direla eta, bere balioak eta nortasuna biltzen duen heinean, gurasoengandik urruntzen hasiko dira. Azken etapan, bere buruari buruzko iritzia osatzen hasiko da eta adiskideekiko lotura sendoak sortzen hasiko da, adiskidetasuna eta elkartasuna landuz (Llorente, 2004).

Halaber, diseinatutako proposamen didaktiko honetan, Gorputz Hezkuntzako ikasgai elementu nagusi izanda, inklusioa emozioen bidez ulertzea eta sentitzea izango du helburu.

3.2 Lehen Hezkuntzako curriculumarekiko lotura

Nik diseinatutako proposamen didaktikoa aurrera eramateko, Euskal Autonomia Erkidegoko *Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak (236/2015 DEKRETUA, 2016ko urtarrilaren 15a)* ezartzen dituen kompetentzietan, helburuetan eta edukietan oinarritu naiz.

Hasteko, egokia izango litzateke curriculumaren nondik norakoa aztertzea. Curriculum hiru zatitan egituratuta dago. Lehenengo zatia, Oinarrizko Hezkuntzako curriculumaren ikuspegi orokorra, bigarren zatia, Lehen Hezkuntzako (LH) curriculumaren berariazko ikuspegia, eta azkenik, hirugarren zatia, derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) curriculumaren berariazko ikuspegia. Kasu honetan, geroago ikusiko den bezala, nik diseinatutako proposamen didaktikoa Lehen Hezkuntzan lantzeko da, hori dela eta, curriculumaren bigarren zatian zentratuko naiz. Curriculumaren zati honetan, oinarrizko diziplina barneko kompetentzia bakoitzak barne hartzen dituen ikasgaiak azaltzen ditu, haien etapako helburuak zein eduki multzoak, eta ebaluazio irizpideak eta lorpen adierazleak deskribatuz.

Curriculumari erreferentzia eginez, bertan ageri den bezala, oinarrizko kompetentziak bizitzarako beharrezko eta ezinbestekoak dira, baina haien arteko bereizketa egin behar da. Horretarako, geroago ikusiko dugun bezala, alde batetik, oinarrizko zehar-kompetentziak edo

orokorrak daude, eta bestetik, diziplina barneko/arteko oinarrizko kompetentziak edo kompetentzia espezifikoak.

Honi lotuta, esan beharra dago Europako Erkidegoen Batzordeak 2006an egindako proposamenean, oinarrizko kompetentziak honela definitu zituztela: *"persona guztiak behar dituztenak garapen eta errealizazio pertsonalerako, hiritar aktibo izateko, gizarteratzeko eta lana lortzeko. Hasierako hezkuntza eta prestakuntza amaitzean, helduarorako prestatzeko behar bezainbeste landuta izan behar dituzte gazteek kompetentzia giltzarriak, eta, aurrerantzean ere, horiek garatu, mantendu eta eguneratu behar dituzte, etengabeko ikaskuntzaren esparruan"* (Eusko Jaurlaritza, 2016: 16).

Esan dugun bezala, alde batetik, **oinarrizko zehar-kompetentziak** edo orokorrak daude, bizitzako esparru eta egoera guztietan arazo egoerak eraginkortasunez ebazteko behar diren kompetentziak dira, bai diziplina-arlo guztietako egoeretan, bai eguneroko bizitzako egoeretan. Hori dela eta, EAEko Oinarrizko Hezkuntza curriculumean (236/2015 DEKRETUA) aurkezten diren zehar kompetentziak honako hauek dira (Eusko Jaurlaritza, 2016: 29):

- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
- Elkarbizitzarako kompetentzia
- Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia
- Norbera izaten ikasteko kompetentzia

Honekin bat, aipatutako kompetentzietatik, honako hauek dira nire proposamen didaktikoan zehar jorratuko diren **oinarrizko zehar kompetentziak** (Eusko Jaurlaritza, 2016):

- **Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia:** Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguruetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeke.
- **Elkarbizitzarako kompetentzia:** Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsonei aitortuz nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.
- **Norbera izaten ikasteko kompetentzia:** Norberari bizitzako esparru eta egoera guztietan sortzen zaizkion sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez gogoeta egitea da, haiei buruz egiten den balorazioaren arabera sendotu eta egokitzea horiek

guztiak, eta, era horretan, etengabeko hobekuntzaren bidez, norbera autorrealizaziora bideratzea, errealizazio horren dimentsio guztietan.

Bestetik, **oinarrizko diziplina barneko kompetentziak** edo **kompetentzia espezifikoak** ditugu, arazo-egoera adierazgarri eta egiazko ebazteko erabiltzen direnak. Honako hauek ditugu (Eusko Jaurlaritzak, 2016: 57-58):

- Hizkuntza- eta Literatura-komunikaziorako kompetentzia.
- Matematikarako kompetentzia.
- Zientziarako kompetentzia.
- Teknologiarako kompetentzia.
- Kompetentzia sozial eta zibikoa.
- Arterako kompetentzia.
- Kompetentzia motorra.

Halaber, Kompetentzia motorraz ezin gara ahaztu, Lehen Hezkuntzan barne hartzen duen ikasgaia Gorputz Hezkuntza delako. Hori dela eta, nik diseinatutako proposamen didaktikoan, Kompetentzia motorra (Gorputz Hezkuntza) eta Kompetentzia sozial eta zibikoa (Inklusioa) hartzen ditut oinarri, gainontzeko kompetentziei pisua kendu barik. Gainera, diziplina barneko kompetentziak eskuratzeko, oinarrizko kompetentzien bitartekaritza behar da.

3.2.1 Kompetentzia motorra

Kompetentzien espezifikoen artean, kompetentzia motorra (Gorputz Hezkuntza) eta kompetentzia sozial eta zibikoa lantzen da. Proposamen didaktikoan oinarri **kompetentzia motorra** denez, saio guztietan lantzen da. *Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak (236/2015 DEKRETUA, or. 103) definitzen duen bezala, "autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisiko eta kulturaren jardun-eremu motorreko egoerak, eta jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintza, prozedurak barneratzea, jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarri batean inurrituta, gorputzaren eta norberaren alderdi fisiko eta emozionalean ongizatea lortzen laguntzeko."*

Oinarrizko kompetentzia motorrak dituen osagaietatik hauek dira proposamen didaktikoarekin bat datozenak (Eusko Jaurlaritzak, 2016, or. 103):

- 1) Jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak lantzea, eta horretarako, ohikotasunez egitea, banaka nahiz taldean, jarduera fisikoak, ludikoak eta kirolak, ongizate pertsonala eta soziala bermatzeko.
- 3) Gorputza naturaltasunez edo intentziaz erabiltzea komunikatzeko eta sormena, afektua eta ulermena adierazteko.
- 4) Eguneroko bizitzan modu kontzientean barneratzea jarduera fisikoaren adierazpen guztiak, osasuna osotasunean zaintzeko eta hobetzeko eta bizitza orekatua izateko.

3.2.2 Konpetentzia sozial eta zibikoa

Konpetentzia motorraz aparte, konpetentzia sozial eta zibikoa lantzen da. *Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak* (236/2015 DEKRETUA, or. 90) definitzen duen bezala, nor bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ezagutu eta ulertzea da, gizarte zientzien jakintzak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz; zientzia horien berezko prozedurak eta metodologiak erabiltzea, autonomiaz eta herritarrei dagokien arduraz jarduteko bizitzaren ohiko egoeretan, gizarte guztiz demokratikoa, solidarioa, inklusiboa eta plurala lortzeko.

Era berean, konpetentzia sozial eta zibikoa dituen osagaietatik hauek dira proposamen didaktikoarekin bat datozenak (Eusko Jaurlaritzza, 2016: 237):

- 1) Norbera banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi eta aritzen dela ulertzea.
- 2) Norberaren gizartea ezagutzea eta kontzientzia hartzea eta gizakien ekintzak gizartean sortzen dituen arazoan aurrean modu positiboan jarduteko gaitasuna lantzea.
- 4) Giza eskubideak izatea norberaren bizitzako eta gizarteko ekintzei eta egoerei buruzko iritziak osatzeko, elkartasuneko jokabideak landuz, balioetan oinarritutako demokrazia gauzatzeko.
- 5) Iraganeko eta gaur egungo gizarte-taldeak izaten dituzten gatazkak elkarri aurre egitea, gaineko kontzientzia kritikoa lantzea, etorkizunean egoera horiek konpontzeko prozedura baketsu eta demokratikoak erabiltzen jakiteko.
- 6) Bizi duten mundua ulertzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrera eskuratzea.

Zehatzago esanda, honako taulan, proposamen didaktikoan landuko diren oinarrizko zehar konpetentziei zein konpetentzia espezifikoari kode bat ezarri zaie, hurrengo tauletan esleituta agertuko direnak.

2 taula: proposamen didaktikoan lantzen diren konpetentziak

1. Oinarrizko zehar konpetentziak	1.1 Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia 1.2 Elkarbizitzarako konpetentzia 1.3 Norbera izaten ikasteko konpetentzia
2. Konpetentzia espezifikoak	2.1 Konpetentzia motorra 2.2 Konpetentzia sozial eta zibikoa

Oharra: egileak egindakoa.

Aldi berean, hauexek dira nire proposamena aurrera eramateko zehaztutako helburuak eta edukiak (Eusko Jaurlaritza, 2016)

➤ **Helburu orokorrak**

- Elkarrekintzan sortzen diren oztopoei aurre egiten ikastea, norberaren eta besteen gaitasunak errespetatuz eta elkarri lagunduz.
- Gorputz hezkuntza ikasgaiaren bidez inklusioa era berritzaile batean lantzea, azaleratzen diren emozioen bidez ikasiz, inklusio zer den ulertzera ailegatzeko.

➤ **Helburu espezifikoak**

- **Gorputz Hezkuntza** ikasgaiari dagokionez, hautemate-gaitasunak eta ahalmen motorrak aztertzea, nork bere buruarekiko konfiantza eta ongizatea sustatuz; norberarekiko nahiz besteekiko erantzukizuneko jarrera erakustea, talde-harremanak sustatuz eta eraginkortasunez eta autonomiaz aritzea. Halaber, ariketa fisikoak, elikadurak eta jarrera-ohiturek osasunean dituzten eraginak aintzat hartzea.
- **Inklusioari** dagokionez, norberaren nortasuna, ezaugarriak eta esperientziak ezagutzea eta finkatzea, besteen nortasuna errespetatuz eta haien autoestimua garatuz, norberaren ekarpenak zein besteenak aintzat hartuz, eta besteekin konpartituz, elkarlanean aritzeko. Halaber, giza eskubideetan oinarritutako elkarbizitza bidezkoa eta berdintasunezkoa eragozten duten jarrerak arbuiatuz, eta arrazionaltasuna, autoerregulazio emozionala eta enpatia erabiliko dira, egoerei buruzko iritzi morala eta objetibotasun nahikoaz emateko.

➤ Edukiak

3.taula: proposamen didaktikoan landuko diren Gorputz Hezkuntzako eduki multzoak

EDUKI MULTZOA	2.ZIKLOA
<p>1. eduki multzoa: Eduki komunak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia, asertibitatea). ➤ Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea. ➤ Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea. ➤ Gatazkak kudeatzea. ➤ Norberaren gorputza erregulatzea.
<p>2. eduki multzoa: Norberaren ezagutza eta kontrola</p>	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Adierazteko eta mugitzeko beharizanetara egokitzea gorputzaren jarrera, era erraz eta orekatuan. ➤ Norberaren eta gainerako pertsonen gorputzaren egoera balioestea eta onartzea, eta jarrera kritikoa izatea gizartean gorputzarekiko dagoen eredu estetikoarekiko. ➤ Nolabaiteko zailtasuna duten mugimenduak egitea nagusiak ez diren gorputz-atalekin. ➤ Oreka eta espazio-denbora antolatzea ekintza eta egoera motor konplexuetan egokitzea.
<p>3. eduki multzoa: Gorputz-adierazpena eta komunikazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Gorputzaren, keinuen eta mugimenduaren bidez adieraztea eta komunikatzea emozioak eta sentimenduak. ➤ Gorputzaren adierazpen- eta komunikazio-erabilerak balioestea. ➤ Gorputzaren bidezko komunikazioa dakarten egoeretan parte hartzea eta egoera horiek errespetatzea.
<p>4. eduki multzoa: Jarduera fisikoa eta osasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ariketa fisikoak osasunari dakarzkion onurak aitortu eta osasungarriak ez diren jokabideak identifikatzea.
<p>5. eduki multzoa: Kultura motorra: aisia eta denbora liberako hezkuntza</p>	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Jolaseko arauak, jarraibideak, estrategiak eta haietan parte hartzen duten pertsonak onartzea eta errespetatzea. Joko garbiko kode bat egitea eta betetzea. ➤ Norberaren eta taldearen ahalegina balioestea jolas eta kirol mota guztietan, aurreiritziak alde batera utzita. ➤ Jolasari eta kirolari balioa ematea, gozatzeko, harremanak izateko eta aisia-denbora gogobetez erabiltzeko.

Oharra: Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak (236/2015 DEKRETUA, or 272-275)

3.3 “Arin arin inklusioari ekin” sentsibilizazio-proposamen didaktikoa:

Esan bezala, hurrengo proposamenean aurkeztuko diren ekintzak Gorputz Hezkuntzako Lehen Hezkuntzako 2.zikloko aurrera eramateko diseinatuta daude. Guztira 16 ekintza dira eta ikasturte batean zehar lantzeko diseinatuta dago (4 taula). Proposamena irailetik apirila arte hilabetean bitan inklusioa lantzeko erronkak burutzea du helburu. Jarduerak Gorputz Hezkuntzako edukiekin lotuta daudenez, taularen lehengo zutabea aipatuta agertzen dira erreferentzia gisa.

4 taula: “Arin arin inklusioari ekin” proposamen didaktikoaren jarduerak hilabetea sailkatuta

GHko EDUKIAK	JARDUERAK (HILABETEAN BITAN EGITEKO)		Hilabeteak
2. Norberaren eta ingurunearen kontrola eta ezagutza	Oztopoz betetako zirkuitua (itsua, hanka-motz, esku-motz)	Bankutik erori gabe, ordenatu (hitz egin gabe)	IRAILA (9)
	Futbola (itsua)	Saskibaloia (gurpildun aukian)	URTARRILA (1)
3. Gorputz adierazpena eta komunikazioa	Gorputzarekin idazten dugu! (hitz egin gabe,)	Zer nago egiten? (hitz egin gabe)	URRIA (10)
	Animaliak gara! (itsuak)	Emozioak irudikatu (hitz egin gabe)	OTSAILA (2)
4. Jarduera fisikoa eta osasuna	Telefono apurtuta (itsuak)	Zapiaren jolasa (elikagai osasuntsuak) itsua	AZAROA (11)
	Etxea garbitu (esku-motz)	Elikagaiak (hanka-motz)	MARTXOA (3)
5. Kultura motorra	Medikua eta kamikaze (esku batekin)	10 paseen jolasa (hanka batekin)	ABENDUA (12)
	Boleibola (eserita)	Ezkutaketa inklusiboa	APIRILA (4)

Oharra: egileak egindakoa.

Taulan ikusten den bezala, bi ekintza borobilduta daude. Lehenengo ekintza urdinez, "Futbola" izenburuarekin, urtarrilean aurrera eramango zen. Bigarren ekintza berriz, gorritz kolorean, "Ezkutaketa inklusiboa-ren" jarduera, apirilean garatuko zen. Bi ekintza hauen taulak, hurrengo puntuan garatuta agertuko dira eta adibide bezala aukeratuta izan dira.

3.4 Jarduera bakoitzaren diseinua

Jarraian proposatzen diren ekintzak bi modu ezberdinetan aurkeztuta agertuko dira. Batetik, proposamen didaktikoaren ekintzak zertan datza aurkezteko, adibide bezala bi ekintzen taula osoa agertuko da. Gainerako 16 ekintzen taulak, eranskinetan (3) agertuko dira.

Esan bezala, proposamen didaktikoaren ekintza bakoitzerako taula bat sortu da. Taula guztiek egitura berdina jarraitzen dute. Hona hemen taularen ezaugarri esanguratsuen azalpena. Gainerakoak, taulan azalduta agertzen dira.

***Aniztasun trataera:** gaitasun-aniztasuna duen pertsona baten azalean jartzea eta ahal duten heinean oztopoak gainditu beharko dituzte ekintza aurrera ateratzeko. Horretarako, desgaitasun ezberdinak landuko dituzte, ikasleek gai izan daitezen bere burua ahalik eta gehien garatzeko. Hona hemen landuko diren sei desgaitasunak:

- Entzuteko desgaitasuna (gorra, entzuteko gaitasunik ez duena)→belarriak estaliko dituzte tapoien bidez.
- Ikusteko desgaitasuna (itsua, ikusteko gaitasunik ez duena)→begiak estaliko dituzte karatula baten bidez.
- Hankamotz (hanka ez duena)→txingoka mugituko dira.
- Eskumotz (eskua ez duena)→eskua bizkarraren atzetik jarrita.
- Mugitzeko desgaitasuna (ibili ezin duena)→lurrean edo aulki batean eserita.
- Mutua (hitz egin gabe)→ahoa estalita.

***Jardueraren barne logika:** ekintzaren barneko egoerari buruzko informazioa ematen du.

***Garapen integrala:** Gorputz Hezkuntzaren bidez, beste ikasgaietan lantzen ez diren arloak sustatzen dira garapen integrala lortuz. Horretarako, ikasleek arlo motorrean, arlo kognitiboan, arlo sozialean eta arlo emozionalean lortuko duten garapena aurkeztuko da. Ezinbestekoa da arlo guztietan garapena ematea ikasleek garapen integrala lortzeko.

Hona hemen proposamenaren bi ekintzen adibidea (*gainontzekoak 3.eranskinetan txertatuta daude*).

Hurrengo taularen adibidea jarraituz, ekintza guztiak azalduta agertuko dira. Hona hemen **5.taula** eta bertan ezaugarri bakoitzaren azalpena:

5.taula: Jarduera guztien taularen **adibidea** ezaugarriekin eta azalpenekin

Jardueraren izena	Jardueraren lehen informazioa.	Hilabetea	Noiz egingo den.
Deskribapena			
Jardueraren informazio nagusia, ekintzaren nondik norakoak jakiteko.			
Aniztasun trataera			
Proposatutako jarduerak aurrera eramateko, fiktiziozko klase bat aurkeztuko da, ikasle guztiok jolastu dezaten (HPB-dun ikaslek barne). Talde horretan 26 ikasle daude eta horietatik, 3 HPB-dun ikasle dira. 2 ikaslek down syndromea dute eta beste ikasleak, autismoa du. Premia berezia duten ikasleei klasean parte hartzeko aukera izateko, jarduerak egokitu dira. (taula bakoitzean jarduera bakoitzeko egokitzapenak agertzen dira). Atal honen helburua, taldearen zein ikasle bakoitzaren beharrei ahalik eta gehien egokitzea da, haien parte-hartzea eta ongizatea bermatzeko.			
Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa			
Gaitasun-aniztasuna duen pertsona baten azalean jartzea eta			
Helburua			
Jardueraren bidez lortu nahi dena azaltzen da.			
Gaitasunak			
Jardueran landu nahi diren gaitasunak azaldu agertuko dira (<i>2.taulan</i> esleitutako kodea ezarriz).			
Edukiak	Gorputz hezkuntzako edukietan zer multzo lantzen den azaltzen du		
Jardueraren barne logika			
Espazioa	Denbora	Materiala	Harremanak
Lekuaren inguruko informazioa	Ekintza aurrera eramateko eskaini behar zaion denbora	Ekintzan erabiliko den materiala agertuko da	Jokalarien arteko elkarrekintza (lankidetzeta edo/eta aurkaritza)
Garapen integrala			
Arlo motorra	Arlo kognitiboa	Arlo soziala	Arlo emozionala
Ikasleek eskuratu eta landu behar duten gaitasunak eta trebetasunak	Autonomia, sormena, pentsamendua, adimen motorra (estrategia)	Harremanak, komunikazioa, inklusioa, sozializazioa, balore positiboak, etb. lantzea.	Autoestimua, autokonfiantza, emozioen ezagupena, kudeaketa eta lanketa
Ebaluazioa			
Diseinatutako errubrikaren bidez, saio bakoitzean zehar irakasleak ikasle bakoitzak izan duen jarrera eta beste hainbat faktore baloratuko du. Gainera, saio bakoitzaren amaieran ebaluazio txiki bat denon artean egingo da eta ikasle bakoitzari kontrol-fitxa bat esleituko zaie (<i>4.eranskinean txertatuta dago</i>) ikasleek sentitu, ikasi eta bizi duten guztia bertan plasmatzeko.			

Oharra: egileak egindakoa.

6.taula: Futbola

Jardueraren izena	FUTBOLA		Hilabetea	Urtarrila
Deskribapena				
<p>Futbola kirola abiapuntu hartuta, ikusmenaren zentzumena gabe jokatzeko du ekintza honen helburua. Bi talde egingo dira eta partaide guztiok karatula batekin estalita eramango dituzte begiak. Desgaitasun hau duten jokalariak, kirol honetan aritzeko, baloi berezi bat erabiltzen da, barruan kaskabulo bat duena. Eremua bereizteko, lurrean soka batzuk itsatsiko dira. Jolasaren helburuetan, gola sartzen saiatzeaz aparte, partaide guztiak pilota ukitzea dago (taldearen beharren arabera, aldaerak egin daitezke: atsedendak, begi bat estaltzea soilik.)</p>				
Aniztasun trataera				
<p>Down sindromea zein autismoa pairatzen duten ikasleek ahal duten neurrian parte hartuko dute. Halaber, irakaslearen laguntza izango dute momentu oro eta esperientzia bizitzeko, hau da, jolasteko begiak minutu bat estaliko dituzte. Gainera, talde bakoitzeko ikasle batek laguntzaile rola har dezake eta hauek, begiak estali gabe jolastuko dute, haien kideen eta HPB-dun ikasleen laguntzailea izateko.</p>				
Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa				
Gaitasun-aniztasuna → Ikusteko desgaitasuna.				
Helburua				
Espazio eta denboraren egituraketaz ohartu, futbola kirola bezala abiapuntu hartuz eta ikusmen zentzua kenduz, taldeka lan eginez beste zentzuak garatzeko eta lantzeko.				
Gaitasunak				
1.2, 1.3, 2.1, 2.2.				
Edukiak	2. MULTZOA: Norberaren eta ingurunearen kontrola eta ezagutza			
Jardueraren barne logika				
Espazioa	Denbora	Materiala	Harremanak	
Kiroldegia	Ordu bat	Karatulak ,sokak, petoak	Soziomotorra (lankidetzeta eta aurkaritza)	
Garapen integrala				
Arlo motorra	Arlo kognitiboa	Arlo soziala	Arlo emozionala	
Oreka, koordinazioa, espazio eta denbora.	Adimen motorra= estrategia erabiltzea. Prozesu taktikoa 1.Hauteman,2.Erabaki 3.Egin	Talde lana, komunikazioa, harremanak errespetua, inklusioa.	Emozioen kudeaketa eta lanketa, autoestimua eta autokonfiantza	
Ebaluazioa				

Saioan zehar irakasleak behatu duen guztia, errubrikaren bidez, ebaluatzeko aukera izango du. Halaber, klasea bukatzean, borobil batean elkartuko dira eta ikasleek bizitako eta sentitutako guztia komentatuko dute. Irakasleak galdera irekiak aurkeztuko ditu, ikasleek hausnartzeko. Geroago, ikasle bakoitzari kontrol-fitxa bana esleituko zaie euren buruarekiko ebaluazio pertsonala egiteko.

Oharra: egileak egindakoa.

7.taula: Ezkutaketa inklusiboa

Jardueraren izena	EZKUTAKETA INKLUSIBOA	Hilabetea	Apirila
Deskribapena			
Ezkutaketa jolasa tradizionala abiapuntu hartuta, ikasleek esperientzia berri bat biziko dute. Horretarako, ikasleek hirunaka jarriko dira eta 4 desgaitasun ezberdin simulatuz jolasten saiatuko dira: 1. itsua izango da, 2. mutua eta 3.gorra. 4.desgaitasuna, hirurok izango dute eta horretarako, hanketatik lotuta ibiliko dira. 6 ikasle, hau da, 2 bikote harrapatzaileak izango dira eta beste guztiok, ezkutatuko dira. Daukaten desgaitasunekin jolasa aurrera ateratzen saiatuko dira. Daukaten zentzuak baliatuz, elkarrekin lan eginez, ezkutatuta daudenak harrapatzen lortzea du helburua.			
Aniztasun trataera			
Down sindromea zein autismoa pairatzen duten ikasleek ahal duten neurrian parte hartuko dute. Halaber, irakaslearen laguntza izango dute momentu oro. 1) Umeek nahi duten momentuan atsedendia egingo dituzte, begitik karatula kenduz. 2) Ahoa estali gabe jolastuko dute, hitz egin gabe saiatu beharko dute. 3) Tapoiak gabe jolastuko dute eta ahal izanez gero, aurikularrak jarriko dituzte musikarekin. 4) HPB-dun ikasleek dauden hirukotean hanketatik lotuta joan ordez, eskutik lotuta mugitzen saiatuko dira (edota lotu gabe eta elkarrekin).			
Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa			
Gaitasun-aniztasuna: 1) ikusteko desgaitasuna, 2) entzuteko desgaitasuna 3) mutua eta 4) hankamotz (hirurak hanketatik lotuta ibiliko dira).			
Helburua			
Ezkutaketa inklusiboan jolastea, ikasle bakoitzari egokitutako desgaitasuna landuz, elkarrekintzan sortutako oztopoak gainditzeko eta sentitutako emozioen bidez ikasteko.			
Gaitasunak			
1.1, 1.2, 2.1, 2.2.			
Edukiak	5.MULTZOA: Kultura motorra		
Jardueraren barne logika			
Espazioa	Denbora	Materiala	Harremanak
Kiroldegia	Ordu bat	Karatulak ,sokak, petoak	Soziomotorra (lankidetzak eta aurkaritza)

Garapen integrala			
Arlo motorra	Arlo kognitiboa	Arlo soziala	Arlo emozionala
Oreka, koordinazioa, espazio eta denbora.	Adimen motorra= estrategia erabiltzea. Prozesu taktikoa 1.Hauteman 2.Erabaki 3.Egin	Talde lana, komunikazioa, harremanak errespetua, inklusioa.	Emozioen kudeaketa eta lanketa, autoestimua eta autokonfiantza
Ebaluazioa			
Saioan zehar irakasleak behatu duen guztia, errubrikaren bidez, ebaluatzeko aukera izango du. Halaber, klasea bukatzean, borobil batean elkartuko dira eta ikasleek bizitako eta sentitutako guztia komentatuko dute. Irakasleak galdera irekiak aurkeztuko ditu, ikasleek erreflexionatzeko. Geroago, ikasle bakoitzari kontrol-fitxa bana esleituko zaie euren buruarekiko ebaluazio pertsonala egiteko.			

Oharra: egileak egindakoa.

3.5 Ebaluazioa

Ebaluazioa aurrera eramateko, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoan agertzen den ebaluazio formatiboa aukeratu da. Halaber, ebaluazio formatiboak ikaskuntza-prozesuaren garapen eta eboluzioaren berri ematea du helburua, erabakiak hartzeko eta prozesua ikasleen beharretara egokitzeko. Gainera, ikaskuntza-prozesu osoan zehar egiten da. Ebaluazio honen bidez, ikasleak gehiago ikasiko du, bere akatsez ohartzen delako eta zuzentzen dituelako (Eusko Jaurlaritzak, 2014).

Kasu honetan, ikasleak haien ebaluazioaren prozesuaren protagonista direnez, euren buruarekiko "auto-ebaluazioa" egiteko, kontrol-fitxa (*5. eranskinean*) prestatu dira, nor bere burua ezagutzeko, bizitako guztia nola sentitu eta azaleratu duten ohartarazteko. Saio bakoitza bukatzean, eta kontrol-fitxa eman baino lehenago, borobil batean elkartzea onuragarri izango litzateke, denon artean zer sentitu duten azaleratzeko eta partekatzeko. Horretarako, ikasle bakoitzari bi pieza esleituko zaizkio, horrek esan nahi du hitz egiteko bi aukera izango dituztela. Hori dela eta, ikasleek hitz egiterako orduan, lehenik eta behin pieza borobilaren erdian jarri beharko dute. Ikasleek banan-banan hitz egin beharko dute, klase osoarekin haien sentimenduak eta iritziak partekatzeko eta haien piezak erdian daudenean elkartuz, figura bat sortzeko. Ekintza honen helburua, piezen laguntzarekin ikasleei hitz egitera zein emozioak azaleratzera sustatzea du helburu.

Esan bezala, aurkeztutako ebaluazioak guztiz ezberdinak dira. Bata taldean egiteko proposatuta dago eta bestea, indibiduala. Ebaluazioak burutzerako orduan, irakasleak kontuan izan behar du bakoitzak gehienez, 10 minutu iraungo duela. Gainera, honek azkeneko iritzia izango du eta egunaren arabera, bata ala bestea erabiltzeko aukera izango du. Nire kasuan, hilabetean bitan jarduerak burutzeko antolatuta dagoenez, behin kontrol-fitxa egingo nuen eta bestean, borobilaren teknika.

Bestetik, irakasleak ikasleek egindako guztia ebaluatzeko helburuarekin, nik diseinatutako errubrika baten laguntza izango du. Bertan, talde lana, emozioen kudeaketa, gaitasunak, jarrera, harremanak osasuna eta inklusioa baloratuko da. Irakaslearen ebaluazioa ez da ikasle bakoitzari nota bat atxikitzeke, baizik eta haien ikaskuntzaren eta jokabideen ondorioak ateratzeko. Errubrikan aurkezten diren adierazleak, aldakorrak izan daitezke. Hona hemen irakasleen ebaluatzeko errubrika:

8 taula: ebaluatzeko errubrika proposamen didaktikoan landutako gaitasunekin sortuta.

GAITASUNAK		ADIERAZLEAK	BIKAIN	ONDO	NAHIKO	GUTXI
1.1	Harremanak	Harreman inklusiboak eta konfiantzazkoak ezartzen ditu ikaskideekin (enpatia). Joko garbia lantzen du jardueretan. Arazoak konpontzen ditu lankidetzan.	Harreman integratzaileak eta inklusiboak ezartzen ditu ikaskideekin. Jardueretan joko garbia lantzea kostatzen zaie. Arazoak konpontzen ditu lankidetzan.	Normalean, arazoak konpontzen ditu lankidetzan baina kostatzen zaio. Ez du joko garbia sustatzen.	Ez ditu harreman inklusiboak ezartzen. Ez du joko garbia jardueretan lantzen. Ez daki lankidetzan arazoak konpontzen.	
1.2 2.2	Inklusioa	Desgaitasuna duten ikaskideen onarpena adierazten du, eta beharrezkoa den laguntza ematen die. Norberarenaz bestelako iritziak interpretatzen eta onartzen ditu. Ezberdintasun fisiko indibidualak onartzen ditu.	Desgaitasuna duten ikaskideen onarpena adierazten du, eta beharrezkoa den laguntza ematen die, ezberdintasun fisiko indibidualak onartuz. Norberarenaz bestelako iritziak onartzen ditu.	Desgaitasuna duten ikaskideen onarpena adierazten du, baina ez die laguntzen. Ezberdintasun fisiko indibidualak onartzea kostatzen zaio.	Desgaitasuna duten ikaskideen onarpena ez du adierazten, ezta laguntzen. Norberarenaz bestelako iritziak ez ditu onartzen.	
1.2 2.2	Talde lana	Lagunduz eta elkarlanean jolasean aritzen da ikaskideekin, norberaren eta besteren mugak aintzat hartuz eta errespetatuz.	Lagunduz eta elkarlanean jolasean aritzen da ikaskideekin, norberaren eta besteren mugak errespetatzen ditu baina ez ditu aintzat hartzen.	Lagunduz eta elkarlanean aritzeko zailtasunak ditu, baina norberaren eta besteren mugak errespetatzen ditu.	Ez daki bere ikaskideekin elkarlanean aritzen. Ez ditu besteen mugak aintzat hartzen ezta errespetatzen.	
1.1 1.3	Emozioen kudeaketa	Norberaren emozioak eta gorputzak ondo kudeatzen daki eta gatazkan dauden aldean emozioak, sentimenduak, pentsamenduak aztertzen eta adierazten ditu.	Praktikaren bidez, azaleratzen diren emozioak eta gorputzak kudeatzen daki, baina gatazkan ez ditu emozioak ezta ikuspuntuak aztertzen.	Normalean bere gorputza eta emozioak kudeatzeko zailtasunak izaten ditu, baina gatazkan dauden aldean sentimenduak azaleratzen daki.	Arazoen aurrean, azaleratzen diren emozioak eta sentimenduak ez daki kudeatzen.	

1.3	Jarrera	Eguneroko bizitzan egoki zaizkion jarrerak hartzen ditu. Jarrera irekia izaten du ikuspuntuak eta sentimenduak partekatzeko. Jarduera fisikoa eta kirola egitean sortzen zaizkion egoera gatazkatsuak konpontzen.	Eguneroko bizitzan egoki zaizkion jarrerak beti ez ditu hartzen. Jarrera irekia izaten du iritziak eta sentimenduak partekatzeko. Jarduera fisikoa eta kirola egitean sortzen zaizkion egoera gatazkatsuak konpontzen kostatzen zaio.	Normalean jarrera irekia izaten du ikuspuntuak eta sentimenduak partekatzerako orduan. Beti ez daki kirola egitean sortzen zaizkion egoera gatazkatsuak konpontzen.	Ez dauka jarrera irekia sentimenduak partekatzeko. Ez daki kirola egitean sortzen zaizkion egoera gatazkatsuak konpontzen.
1.3 2.1	Gaitasunak	Espazioan orientatzen du bere burua, erreferentzia-puntuak hartuta. Egoera motorrari dagozkion jarrera egokiak hartzen ditu.	Erreferentzia-puntuak hartzea kostatzen zaio baina behin hartuta ondo orientatzen da espazioan. Egoera motorrari dagozkion jarrera egokiak hartzen ditu.	Batzuetan, erreferentzia-puntuak hartzeko eta espazioan orientatzeko zailtasunak izaten ditu. Egoera motorrari dagozkion jarrera desegokiak hartzen ditu.	Ez du espazioan bere burua ezta erreferentzia-puntuak hartzen. Egoera motorrari dagozkion jarrera desegokiak ditu.
1.3 2.1	Osasuna	Jolasetan landutako edukiak barneratu ditu, jokabide aktiboak sustatuz eta ariketa fisikoak osasunerako duen balioa aintzat hartuta. Gorputza, jarrera eta elikadura-ohiturak zaintzeko interesa du.	Jolasetan landutako edukiak barneratu ditu eta gorputza, jarrera eta elikadura-ohiturak zaintzeko interesa du.	Batzuetan jolasetan landutako edukiak barneratzen kostatzen zaio, beti ez du jokabide aktiboa sustatzen ezta gorputza, jarrera eta elikadura-ohiturak zaintzeko interesa jartzen.	Jolasetan landutako edukiak ez ditu barneratu ezta jokabide aktiboa sustatu. Gorputza, jarrera eta elikadura-ohiturak zaintzeko interesa ez du jarri.

Oharra: egileak egindakoa.

4. BALORAZIO PERTSONALA

Gradu Amaierako Lanarekin hasi nintzenean, poz handia nuen. Gorputz Hezkuntzako Minorra egiten ari nintzen eta ikasten nuena interesgarria eta garrantzitsua iruditu zitzaidan. Hori dela eta, gaur egungo eskoletan inklusioa lantzen den moduari buelta bat ematea eta proposamen didaktiko bat aurkeztea pentsatu nuen. Hasieran, lana bideratzea kostatu zitzaidan, inklusioa lantzeko material berritzaile eskasa dagoelako, baina hasieratik pentsatuta nuen ideia mantendu izan dut, “Gorputz Hezkuntza, Inklusioa lantzeko eta ulertzeko bidea” lana aurkeztuz.

“Arin arin inklusioari ekin” proposamenean aurkeztutako jarduerak bai Gorputz Hezkuntzako minorrean zein unibertsitatekan praktikatzeak aukera izan dut. Minorrean desgaitasun ezberdinak landu genituen eta lehengo pertsonan hankamotz, eskumotz, ikusteko desgaitasuna eta beste hainbat ezagutu izan nituen. Ikaskuntza eta bizipen paregabe hori esker, nire Gradu Amaierako Lanaren motorra aurkitu nuela esan dezaket.

Egia da inklusiorako bidea ez dela erraza eta horren sustapenak gaur egungo eskoletan erronka itzela dela hezkuntza sistemarentzat. Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntza curriculumean agertzen den bezala, inklusioak parte hartzen du baina nire ustez, gaur egungo hezkuntza sistemak zein eskolek, inklusioak behar duen lanketa eta garrantzia, ez dute bermatzen. Horren ondorioz, bazterkeriazko egoerekin apurtzeko eta txikitatik ikasleei balore eta pentsamendu kritikoan hezteko, inklusioarekiko sentsibilizazio jarduerak HPB-dun ikasleekin eta bereziki gainontzekoekin, lantzea ezinbestekoa denaren ustean nago. Gainera, nire aburuz, ezjakintasun faltagatik, arazo eta egoera desatseginak gertatzen dira. Gaur egungo eskolek eta gizarteak berdintasunezko mezua transmititu behar dute. Hori dela eta, egoera eta komentario horiek alboratu arte, ez da “Inklusioa” eta “Hezkuntza Premia Bereziak” modu natural batean ulertuko ezta landuko.

Esan bezala, proposamenean aurkeztutako jarduera horien bitartez, ikasleek gaur egungo bizi garen errealitatera hurbilduko dira, Hezkuntza Premia Berezia daukaten pertsonen bizi izaten dutena haiek lehengo pertsonen bizitzeko eta ezagutzeko aukera izanda. Nire ustez, enpatia eta errespetu baloreak bezala lantzeaz aparte, haien buruan konfiantza gehiago irabaziko dute. Gainera, bizipen berriak esperimentatuko eta oztopo ezberdinei irtenbidea bilatu beharko dituzte, hau da, bizitza errealean gertatzen den bezala.

Txosten honetan martxan jarritako proposamena, eredu bat da soilik. Honekin adierazi nahi dudana inklusioa lantzeko milaka modu daudela da eta guztion gogoarekin eta parte hartzearekin, inklusioa lantzeko baliabide didaktiko berriak sortzea errazagoa izango

litzatekeela. Gainera, pertsona kritikoak hezteko, ezinbestekoa da autokritika egiten duten ekintzak praktikan jartzea. Oso garrantzitsua da ikasleek euren burua, mugak eta gaitasunak ezagutzea. Hori dela eta, ikasle guztientzako kalitatezko hezkuntza bidezkoa eta justua eraikitzen laguntzeko konpromisoa eta jarrera dakartza hezkuntza inklusiboak.

Gaur egungo eskoletako errealitatea ezagututa eta inklusioa modu aberasgarri batean lantzeko nahian proposamen didaktikoa sortu izan dut. Pertsonalki ezin izan dut proposamena praktikara eraman, baina etorkizunean aukera izanez gero, aurrea eramango dudalakoan nago.

Halaber, ezagutzen ditugun jolas tradizionalak eta gaur egungoak abiapuntutzat hartuz gero, ekintza esanguratsuak eta berritzaileak sor ditzakegu. Gainera, nahiz eta guztiok ezberdinak izan, eskubide berdinak ditugula ulertu behar dute. Hori dela eta, pertsona bakoitza den moduan errespetatu eta onartu behar dute, guztiok ezberdinak eta bereziak garelako.

Esan bezala, Gradu Amaierako Lana egiten hasi nintzenean, azkenean sortu dudana lana, sortuko nuela ez nuen pentsatzen. Lan honek gaur egungo eskolen errealitatea ezagutzeko eta aztertzeko aukera eman dit. Gainera, ikerketa bat egiten nuen lehen aldia zenez, hasieran nuen ezjakintasunarekin pixkanaka lana aurrera ateratzen joan nintzen, grafikoak analizatzen eta ikerketa baten prozesuaz ikasi nuen. Azkenean, prozesu osoan zehar, bai Gorputz Hezkuntzako Minorra egiten bai GrAL-a burutzen, ikasitako guztia nire lanean islatu dut eta esan beharra daukat, sortutako lanarekin oso pozik nagoela.

Etorkizunari begira, eskoletan, gizartean eta gizaki bakoitzaren pentsamenduan, lan eta aldaketa handia geratzen dela esan dezakegu. Betidanik esan den bezala, aldaketa guztiak, pausu txiki batekin hasten direla eta pertsonalki proposamen honetan diseinatutako erronken hasiera baino izango ez delakoan nago. Bukatzeko, espero dut sortutako sensibilizazio-proposamen didaktikoa, "proposamen" batean soilik ez geratzea eta egindako lana beste norbaitentzat ere baliagarria izatea gustatuko litzaidake, ordu asko baitaude lan honen atzean. Halaber, Gradu Amaierako Lan honen bidez, Gorputz Hezkuntzako irakasleentzako eskaintako baliabide didaktikoari erabilera ematea espero dut.

5. BIBLIOGRAFIA

Blanco, R. (2006). La equidad y la inclusión social: Uno de los desafíos de la educación y la escuela hoy. REICE: Revista Iberoamericana sobre calidad, eficacia y cambio en educación, 4 (3), 1-15.

Cansino. J.A (2016) Un nuevo paradigma para un futuro más saludable y con valores.- Deporte Inclusivo, Actividad Física Inclusiva y Educación Física Inclusiva. *Revista nacional e internacional de educación inclusiva*, pp: 69-86

Consejo Escolar de Euskadi (d.b.). La Educación en Euskadi. Informe 2013-2015. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritz. Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila. Berreskuratuta: http://www.ikuspegi.eus/documentos/novedades/Informe_2013-2015_DEFINITIVO.pdf -tik.

Darretxe, L. (2013). *Hezkuntza Inklusiboa eta Aniztasunari Arreta*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Dussan, C. P. (2010). Educación inclusiva: Un modelo de educación para todos. *ISEES: Inclusión Social y Equidad en la Educación Superior*, 8, 73-84.

Echeita. G. (2016). Educación Inclusiva De los sueños a la práctica del aula. Cuaderno de Educación, 75, 1-9.

Escribano, A. eta Martinez, A. (2013). Inclusión educativa y profesorado inclusivo. Aprender juntos para aprender a vivir juntos. *Estudios sobre educación*, 24, 249-251.

Eusko Jaurlaritz, (2014). Heziberri 2020. Hezkuntza eredu pedagogikoaren esparrua. Vitoria-Gasteiz: Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila.

Eusko Jaurlaritz, (2016). *236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena*.

Fernández-Batanero, J. M. (2005). ¿Educación inclusiva en nuestros centros educativos? Sí, pero ¿cómo?. *Contextos educativos: Revista de educación*, (8), 135-148.

FEVAS. (2010). Hezkuntza inklusioarako materialen gida: adimen eta garapen urritasuna. Lehen Hezkuntza. Bilbo: FEVAS.

López-Vélez, A.L. (2018). La escuela inclusiva: El derecho a la equidad y la excelencia educativa. En busca de la equidad y la excelencia. Bilbao: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua/Servicio Editorial.

Llorente, B. (2004). Jolasaren oinarri teorikoak eta humeen jolasak : (animaziorako jokoak eta jolas-ekintza fisikoak). Vitoria-Gasteiz : Eusko Juarlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Ozamiz Etxebarria, N. (2017) Adimen emozionala eskolan: gaitasun sozialak jolasaren bitartez barneratuz. Ikasmaterialak UPV/EHU.

Patterson, CH. E. (1995). Foreword. In R. A. Villa and J. S. Thousand (Ed.): *Creating an Inclusive Schools*. (pp. v-vi). Alexandria: ASCD.

Pellicer, R. (2014). Gorputz Hezkuntza Emozionala. III.topaketa. *Hik hasi Aldizkaria*. Webgunetik berrezkuratuta: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20141101/emozioak-gorputz-hezkuntzan-tik>.

Sánchez-Teruel, D. (2013) Inclusión como clave de una educación para todos. Revisión teórica. Berreskuratuta: <https://www2.uned.es/reop/pdfs/2013/24-2%20-%20Sanchez-Teruel.pdf>-tik.

Rodríguez, S. (2017). La Educación que deja huella (y no dicatrices). Mamas DeFábula.



Vizcarra. M.(Koord), (2014). Gorputz Adierazpena Lehen Hezkuntzan. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.

6. ERANSKINAK




















































1. Eranskina: ikasleen galdeketak.

CUESTIONARIO PARA ALUMNOS Y ALUMNAS

Con este cuestionario queremos saber tu opinión sobre algunas cosas del colegio, y así poder mejorarlas. Por favor, contesta dando tu opinión marcando con una X en el recuadro.

-  SI
-  NO.
-  "NO LO SÉ "

		Mi opinión es		
1	En mi colegio puedo conseguir todo lo que quiera.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2	En mi colegio puedo superar cualquier problema.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3	Cuando me dicen que hago bien mi trabajo tengo más éxito.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4	Siento orgullo de mis éxitos.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5	Mi profe valora mis éxitos sin compararme con otros.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6	Mi profe nos etiqueta como buenos o malos.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7	Critico a mis compañeros que tienen dificultades.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8	Critico a mis compañeros que les cuesta más aprender.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9	Critico a mis compañeros que trabajan y les va bien en clase.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10	Mis profes piensan que todos aprendemos mucho.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

		Mi opinión es		
11	Ayudo a mis compañeros y compañeras.			
12	Escucho con atención sin interrumpir a mis compañeros y compañeras.			
13	Solo me río de mis compañeros cuando es una broma.			
14	Si no estoy de acuerdo lo digo, pero con respeto.			
15	Normalmente trabajamos en grupo.			
16	En los debates, sabemos las normas para que podamos hablar todos.			
17	Cuando hacemos trabajos en grupo, nos adaptamos a lo que sabemos cada uno.			
18	En grupo nos repartimos las tareas y aprendemos juntos.			
19	He aprendido a explicar a otros lo que he hecho.			
20	He aprendido a enseñar a otros lo que sé.			
21	Ayudo a que todos aprendamos juntos.			
22	Me gustan mucho las actividades en grupo.			
23	Junto con mis profes, ayudo a mis compañeros cuando tienen dificultades.			
24	Cuando aprendo algo, me motiva a aprender más.			
25	Comparto con mis compañeros la forma en que he solucionado mis dificultades para aprender algo.			
26	Comparto con mis compañeros la forma en que he solucionado mis problemas.			
27	Juntos resolvemos los problemas de aprendizaje que tenemos.			

Lo que más me gusta de mi colegio es...

Lo que menos me gusta de mi colegio es...


“¡MUCHAS GRACIAS!”

2. Eranskina: emaitzen grafikoak.

Grafikoei egokitutako zenbakia, galdeketen erantzunak dira 1etik 28ra antolatuta.


1

En mi colegio puedo conseguir todo lo que quiera.




2

En mi colegio puedo superar cualquier problema.




3

Cuando me dicen que hago bien mi trabajo tengo más éxito.




4

Siento orgullo de mis éxitos.




5

Mi profe valora mis éxitos sin compararme con otros.




6

Mi profe nos etiqueta como buenos o malos.




7

Critico a mis compañeros que tienen dificultades.




8

Critico a mis compañeros que les cuesta más aprender.




9

Critico a mis compañeros que trabajan y les va bien en clase.




10

Mis profes piensan que todos aprendemos mucho.




11

Ayudo a mis compañeros y compañeras y escucho con atención sin interrumpir




12

Escucho con atención sin interrumpir a mis compañeros y compañeras.




13

Solo me río de mis compañeros cuando es una broma.




14

Si no estoy de acuerdo lo digo, pero con respeto.




15

Normalmente trabajamos en grupo.




16

En los debates, sabemos las normas para que podamos hablar todos.




17

Cuando hacemos trabajos en grupo, nos adaptamos a lo que sabemos cada uno.




18

En grupo nos repartimos las tareas y aprendemos juntos.




19

He aprendido a explicar a otros lo que he hecho.




20

He aprendido a enseñar a otros lo que sé.




21

Ayudo a que todos aprendamos juntos.




22

Me gustan mucho las actividades en grupo.




23

Junto con mis profes, ayudo a mis compañeros cuando tienen dificultades.




24

Cuando aprendo algo, me motiva a aprender más.




25

Comparto con mis compañeros la forma en que he solucionado mis dificultades para aprender algo.




26

Comparto con mis compañeros la forma en que he solucionado mis problemas.



27

Juntos resolvemos los problemas de aprendizaje que tenemos.



3. Eranskina: proposamen didaktikoaren taulak

Txostenaren 4.taulan ikusten den moduan, jarduerak hilabeteka antolatuta daude (hilabete bakoitza kolore bat du). Hurrengo taulak lehengo bertsiokoak dira, hori dela eta elementu batzuk gehitzea faltako litzaieke:

1. OZTOPOZ BETETAKO ZIRKUITUA			
<p>Jarduera bi zatitan banatuko da. Lehenengo zatian, ikasleek banaka lan egin beharko dute. Txingoka (hanka-motz direla simulatuz) uztaiez betetako zelaia zeharkatu beharko dute. Jarraian, esku bat erabiliz (esku-motz direla simulatuz) hiru pilota jaurtiz, kutxa batean sartzen saiatuko dira. Bigarren zatian berriz, bikoteka jarriko dira. Hasieran, bata protagonista izango da eta bestea, laguntzailea. Geroago, rolak aldatuko dituzte. Hori dela eta, protagonistak bere kidearen laguntzarekin, aurretik egindako zirkuitu berdina egingo du, baina kasu honetan, itsuen paperean jarrita, begiak estalita izango dituztelako. Laguntzaileak protagonistari gidatzen lagundu beharko dio. Laguntzaileek "itsua" dela simulatzen duen pertsonak, objektuak ez direla ulertu behar dute, baizik eta haien laguntza (gifa).</p>			
Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa			
Gaitasun-aniztasuna →Egokitzapena: hanka-motz, esku-motz eta itsua.			
Helburuak			
Ikasleek oztopoz betetako zirkuitu bat zeharkatzea, duten desgaitasunaren aurrean bizipenak esperimintatuz (txingoka, eskua barik eta ikusi gabe), oztopoen eta azaleratutako emozioen aurrean bakartasunaren eta laguntzaren garrantziaz ohartzeko eta ikasteko.			
Edukiak			
2. MULTZOA: Norberaren ezagutza eta kontrola			
Jardueraren barne logika			
Materiala - Uztaiak, pilotak, kutxa, karatulak	Harremanak - Psikomotorra - Soziomotorra (Lankidetzeta)	Denbora - Ordu bat	Espazioa - Polikiroldegian
Garapen integrala			
Arlo motorra: Oreka eta koordinazioa Arlo kognitiboa: autonomia eta sormena. Arlo soziala: laguntzaren eta elkarlanaren garrantziaz ohartu. Arlo emozionala: Autoestimua eta autokonfiantza.			

2. BANKUETATIK ERORI GABE!

Irakasleak gai bat zehaztuko du. Polikiroldegian hiru banku jarraian jarriko dira eta ikasleek zutituko dira. Gaiaren arabera, ordenatu beharko dira. Horretarako, ezin izango dute hitz egin ezta bankutik erori. Mimikaz eta haien gorputzaren laguntzaz, komunikatzen eta elkarlanean lan egiten saiatuko beharko dute. (Gaiak: hilabeteka antolatu, besteak beste).

Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa

Gaitasun-aniztasuna → Egokitzapena: mutuak (hitz egin gabe)

Helburuak

Ikasleek egokitutako gaiaren arabera banku baten gainean ordenatzea, duten desgaitasunaren aurrean (hitz egin gabe) bizipenak esperimendatuz, bizitzan dauzkagun arazoez ohartzeko, elkarlanean ikasteko eta bizitako emozioak azalertzeko.

Edukiak

2. MULTZOA: Norberaren ezagutza eta kontrola

Jardueraren barne logika

Materiala	Harremanak	Denbora	Espazioa
- Bankuak	- Lankidetzak	-50 minutu inguru	- Polikiroldegian

Garapen integrala

Arlo motorra: Oreka eta koordinazioa

Arlo kognitiboa: helburua lortzeko taldeka lan egitea eta estrategiak erabiltzea.

Arlo soziala: gorputzarekin komunikatzea.

Arlo emozionala: Autoestimua (poza, tristura, urduritasuna) eta autokonfiantza.

3. GORPUTZAREKIN IDAZTEN DUGU!

Ikasleek taldeka jarriko dira eta talde bakoitzari gai edo hitz bat esleituko zaio. Hitz egin gabe, egokitutako gaia edo hitza interpretatu beharko dute, baina taldean prestatzeko, hitz egin gabe egin beharko dute. Horretarako, gorputza erabiliz eta taldeka lan eginez, egokitutako gaia lurrean etzanda aurkeztuko dute eta besteok lurrean jartzen duen asmatzen saiatuko dute.

Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa

Gaitasun-aniztasuna → Egokitzapena: mutua (hitz egin gabe)

Helburuak

Bikoteka jarrita egokitutako txartelaren ekintza irudikatzea, gure gorputzarekin komunikatuz, hitz egin gabe komunikazioa posiblea dela ikasteko.

Edukiak

3. MULTZOA. Gorputz adierazpena eta komunikazioa

Jardueraren barne logika

Materiala	Harremanak	Denbora	Espazioa
- Txartelak	- Lankidetzak	-50 minutu inguru	- Polikiroldegian

Garapen integrala

Arlo motorra: koordinazioa.

Arlo kognitiboa: sormena.

Arlo soziala: elkarlanean jolastu arauak eta kideak errespetatuz.

Arlo emozionala: Autoestimua (poza, tristura, urduritasuna) eta autokonfiantza.

4. ZER NAGO EGITEN?

Ikasle bakoitzari txartel bana emango zaie. Bertan, ekintza ezberdinak irudikatuta agertuko dira. Esate baterako, korrika egiten, jaten, lo egiten, irakurtzen, etxeko lanak egiten, besteak beste. Ikasleek bekokian irudia itsatsita eramango dute, denok ikus ahal izateko. Irakaslea kaskabilo batekin soinua egitean, ikasleek hitz egin gabe eta eremutik sakabanatuz, bikote batekin topatu beharko dira. Behin topatuta, aurrean daukaten bikotearen irudia mimikaz antzeztu beharko dute, honek kopetan daukan ekintza asmatzeko. Behin asmatuta, honek eskuarekin zeinu bat egingo dio, egiaztatzeko eta bere txanda izango da.

Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa

Gaitasun-aniztasuna → Egokitzapena: mutua (hitz egin gabe)

Helburuak

Taldeka jarrita esleitutako hitza edo gaia lurrean irudikatzea, haien gorputzak komunikatzeko tresna izanik, talde lanaren eta hitzaren garrantziaz ohartarazteko.

Edukiak

3. MULTZOA. Gorputz adierazpena eta komunikazioa

Jardueraren barne logika

Materiala	Harremanak	Denbora	Espazioa
- Txartelak	- Lankidetzak	-50 minutu inguru	- Polikiroldegian

Garapen integrala

Arlo motorra: oreka eta koordinazioa.
 Arlo kognitiboa: sormena eta autonomia.
 Arlo soziala: elkarlanean jolastu arauak eta kideak errespetatuz.
 Arlo emozionala: Autoestimua (poza, tristura, urduritasuna) eta autokonfiantza.

5. ELIKAGAIEN PIRAMIDEA!

Bosnaka jarriko dira eta irakasleak seinalea egitean, talde bakoitzetik bat ahalik eta azkarren txingoka (hanka-motz dela irudikatuz) aterako da eta zelaiaren kontrako muturrean dagoen elikagaiaren piramidearen puzzlearen zati bat hartuko du, segidan bere taldera itzuliz. Partaide guztiek puzzlearen zati bat izatean, haien ezagupenekin elikagaien piramidean agertzen diren multzoak antolatzen saiatu beharko dute. Guztiok bukatzean, denen artean zuzenduko da, orden zuzena sailkatuz.

Jolasaren bigarren atalean berriz, klase osoarekin borobil bat eginez, lurrean eseriko dira eta “telefono apartuta” izeneko jolasa burutuko da. Elikagaien multzoen esaldi bat emango zaie eta begiak estalita, mezua ikasleen artean transmitituko da. Transmititu beharreko mezua behin errepikatu daitezke. Azkenari ailegatutako mezua ozenki esango du, lehengo mezuarekin konparatuz.

Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa

Gaitasun-aniztasuna → Egokitzapena: hanka-motz eta itsua.

Helburuak

Elikagaien piramidean dauden multzoak ikastea eta bereiztea, ikusmenaren sentsua barik haien artean aurreko kideak esandako mezua transmitituz, entzumenaren sentsua garatzeko.

Edukiak

4. MULTZOA. Jarduera fisikoa eta osasuna

Jardueraren barne logika

Materiala	Harremanak	Denbora	Espazioa
- Elikagaien piramidearen puzzlea	- Lankidetzak - Aurkaritza	-Ordu bat	- Polikiroldegian

Garapen integrala

Arlo motorra: koordinazioa eta oreka
 Arlo kognitiboa: teoria praktikarekin erlazionatu.
 Arlo soziala: elkarlanean jolastuz, ekintzaren helburua lortuz.
 Arlo emozionala: Autoestimua (poza, tristura, urduritasuna,...) eta autokonfiantza.

6. ZAPIAREN JOLASA

Bi talde egingo dira eta partaide bakoitzak zenbaki bat izango du. Erdian dagoen pertsona zapia izateaz gain, poltsa bat izango du eta bertan, janari osasungarrien irudiak edukiko ditu. Hark zenbaki bat esatean, zenbaki bera duten partaideek azkar txingoka atera behar dira (hanka-motz direla irudikatuz) zapia ahalik eta azkarren hartzeko. Zapia hartzen duen lehengoak, poltsan eskua lehengo sartzeko aukera izango du. Bi partaideek eskuan elikagaien argazkia izatean, daukaten elikagaiaren izena ozenki esan beharko dute eta berehala, elikagai osasuntsua duen partaideak, elikagaia hain “osasuntsua” duen partaideari harrapatzera ahalik eta azkarren joango da. Hau da, elikagai osasuntsuak, hain “osasuntsuak” ez direnei jaten dituzte.

Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa

Gaitasun-aniztasuna → Egokitzapena: hanka-motz.

Helburuak

Ikasleek elikagaiak osasuntsuaren arabera bereiztea, bai desgaitasunaren aurrean azaleratutako emozioak kudeatuz zein jolas tradizionala abiapuntu bezala hartuta, kontzeptu teorikoak modu dinamiko eta motibagarri batean ikasteko.

Edukiak

4. MULTZOA. Jarduera fisikoa eta osasuna

Jardueraren barne logika

Materiala	Harremanak	Denbora	Espazioa
- Zapia	- Lankidetzaz	-50 minutu inguru	- Polikiroldegian
- Elikagaien poltsa	- Aurkaritza		

Garapen integrala

Arlo motorra: Oreka eta koordinazioa

Arlo kognitiboa: elikagaiak osasuntsuak diren arabera bereiztea.

Arlo soziala: elkarlanean jolastu arauak eta kideak errespetatuz.

Arlo emozionala: Autoestimua (poza, tristura, urduritasuna,...) eta autokonfiantza.

7. MEDIKUA ETA KAMIKAZE

Bi talde egingo dira. Talde bakoitza bere zelaia izango du eta zelaiaren erdian hiru baloi jarriko dira. Irakasleak “ba” esatean, partaideek ahalik eta azkarren baloiak hartzera joan beharko dute. Baloiak hartzen duen lehengo partaideak jolasa hasiko du. “Baloi erre” jolasa bezala da, baina aldaerekin. Partaide guztiak eginkizun berdina izango dute, talde bakoitzeko bi partaide izan ezik. Alde batetik, **medikuak** bere taldeko partaideak sendatzeko haien buruak

ukitu beharko ditu. Bestetik, **kamikazea** jolasaren “zoroa” izango da. Honek, aurkako taldearen zelaira pasatzeko eta baloiarekin emateko aukera dauka. Aurkako taldekoek ematean, zure zelaian eseri behar zara zure taldeko medikua libratu arte. Estrategiak erabili behar dituzte aurkako taldea medikuak nor den ez asmatzeko.

Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa

Gaitasun-aniztasuna → Egokitzapena: esku-motz

Helburuak

Taldeka joko garbia sustatzea, estrategiak eta haietan parte hartzen duten pertsonak onartuz eta errespetatuz, jolasean sortutako arazoak elkarlanean konpontzen ikasteko.

Edukiak

5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza

Jardueraren barne logika

Materiala	Harremanak	Denbora	Espazioa
- Pilotak	- Lankidetzak	-Ordu bat	- Polikiroldegian
- Petoak	- Aurkaritza		

Garapen integrala

Arlo motorra: Oreka eta koordinazioa

Arlo kognitiboa: taldeka estrategiak asmatzea.

Arlo soziala: elkarlanean jolastu arauak eta kideak errespetatuz.

Arlo emozionala: Autoestimua (poza, tristura, urduritasuna) eta autokonfiantza.

8. 10 PASEEN JOLASA

Ikasleek bosnaka jarriko dira. Partidu txikiak jokatuko dituzte bata bestearen aurka. Jolasaren helburua ahalik eta azkarren 10 pase egitea da. Joko honetan eskua erabiltzen da eta kasu honetan, esku-motz garelara simulatuz, esku bat bakarrik erabiliko dute. Talde berdineko partaideen artean 10 pase eginez, puntua lortuko dute. Pilota lurrera erortzean edo kontrako taldea harrapatzean, talde horrek lortutako paseak automatikoki ezabatzen dira eta berriro zerotik zenbatzen hasten da.

*Aldaera: taldearen arabera, paseen kantitatea gehitu daiteke. Gainera, kapitainaren rola jokoan sar daiteke. Kasu honetan, kapitaina etxean egongo da eta 10.pasea lortzeko, berari pasatu beharko zaio.

Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa

Gaitasun-aniztasuna → Egokitzapena: hanka-motz.

Helburuak			
Taldeka lan egiten ikastea, joko garbia, errespetua eta guztion parte-hartzea sustatuz, arlo kognitiboa garatzeko eta harremanaz gozatzeko.			
Edukiak			
5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza			
Jardueraren barne logika			
Materiala	Harremanak	Denbora	Espazioa
- Baloiak - Petoak	- Lankidetzaz - Aurkaritza	-Ordu bat	- Polikiroldegian
Garapen integrala			
Arlo motorra: Oreka eta koordinazioa			
Arlo kognitiboa: talde lana sustatu eta estrategiak asmatu.			
Arlo soziala: elkarlanean jolastu arauak eta kideak errespetatuz.			
Arlo emozionala: Autoestimua (poza, tristura, urduritasuna) eta autokonfiantza.			

9. FUTBOLA
Txostenean adibide moduan erabilitako jarduera da eta bertan azalduta dago.

10. SASKIBALOIA
Saskibaloian jolasteko, kirolean bertan erabiltzen diren arau berdinak ezarriko dira, hori bai, gurpildun aulkian egokituta. Horretarako, eskolak "ZUZENAK" fundazioaren laguntzarekin aintzakotzat hartuko du. Zuzenak fundazioak baliabideak eta aukerak eskaintzen ditu urritasunen bat duten lagunek egin ditzaten arazo fisikorik pairatzen ez duten lagunek egiten dituzten jarduera berberak. Hori dela eta, profesional hauen laguntzarekin gurpildun aulkian dauden pertsonak Lehen Hezkuntza ikasle hauek lehenengo pertsonan biziko dute. Bi talde egingo dira eta partidu txiki bat jolastuko dute. 15 minutuko partiduak izango dira. Ahalik eta saski gehien sartzen duen taldea, irabazlean bihurtuko da.
Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa
Gaitasun-aniztasuna →Egokitzapena: gurpildun aulkia
Helburuak
Gurpildun aulkian saskibaloiko partidu bat jolastea, gorputzaren, keinuen eta mugimenduaren bidez emozioak adieraztea eta kideekin komunikatzea, taldeka lan eginez oztopoak gainditzeko eta esperientzia ezagutzeko.
Edukiak
2. MULTZOA. Norberaren eta ingurunearen kontrola eta ezagutza

Jardueraren barne logika			
Materiala	Harremanak	Denbora	Espazioa
- Gurgildun aulkia	- Lankidetzaz	-50 minutu inguru	- Polikiroldegian
- Baloiak	- Aurkaritza		
Garapen integrala			
Arlo motorra: koordinazioa			
Arlo kognitiboa: estrategia eta talde landa sustatu			
Arlo soziala: elkarlanean jolastu arauak eta kideak errespetatuz.			
Arlo emozionala: Autoestimua (poza, tristura, urduritasuna) eta autokonfiantza.			

11. Animaliak gara!			
Taldea borobil batean elkartuko dira eta ikasle bakoitzari txartel bana esleituko zaie. Lau animalia ezberdinetako txartelak egongo dira. Honako animalia hauek izango litzateke: txakurra, katua, behia eta astoa. Ikasle bakoitza egokitutako txartela behin ikusita, eremutik sakabanatuko da eta karatula batekin begiak estalita, txartelean duen animaliaaren soinua egiez, animalia bera duten partaideekin elkartuko da.			
Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa			
Gaitasun-aniztasuna → Egokitzapena: hitz egin gabe (mutua)			
Helburuak			
Ikasleek ikusmenaren zentzua gabe, komunikatzen saiatuko dira, egokitutako animaliaaren soinua eginez, animalia berdina duten kideekin elkartzeko.			
Edukiak			
3. MULTZOA. Gorputz adierazpena eta komunikazioa			
Jardueraren barne logika			
Materiala	Harremanak	Denbora	Espazioa
- Karatulak	- Lankidetzaz	-50 minutu inguru	- Polikiroldegian
- Txartelak			
Garapen integrala			
Arlo motorra:			
Arlo kognitiboa: entzumena landu			
Arlo soziala: laguntza eta talde lana sustatu			
Arlo emozionala: Autoestimua (poza, tristura, urduritasuna) eta autokonfiantza.			

12. EMOZIOAK IRUDIKATU

Ikasleek taldeka jarriko dira eta erdian kutxa bat egongo da emozio ezberdineko txartelekin. Banan-banan emozio bat hartuko dute eta ikasle bakoitza euren buruan sentituz, besteei transmititu beharko die (hitz egin gabe). Ahalik eta hobeto egiten saiatuko beharko da, haien kideek asmatu ditzaten. Jarduera honek hainbat aldaera sartzeko aukera ematen du. Taldearen arabera, kutxan emozioak sartzeaz gain, antzerki edo istorio txikiak sartu daitezke, ikasleek sentitzeko eta antzezteko.

Aniztasunari inguruko sensibilizazioa

Gaitasun-aniztasuna → Egokitzapena: mutua.

Helburuak

Ikasleek irudikatu behar duten emozioa hitz egin gabe, transmititzea eta sentitzea, euren azalean sentitzeko eta haien kideek asmatu ahal izateko.

Edukiak

3. MULTZOA. Gorputz adierazpena eta komunikazioa

Jardueraren barne logika

Materiala	Harremanak	Denbora	Espazioa
- Zapia - Elikagaien poltsa	- Lankidetzaz - Aurkaritza	-50 minutu inguru	- Polikiroldegian

Garapen integrala

Arlo motorra: ez dago.

Arlo kognitiboa: sormena erabiltzea.

Arlo soziala: elkarlanean jolastea.

Arlo emozionala: Autoestimua (poza, tristura, urduritasuna) eta autokonfiantza.

13. ETXEA GARBITU

Ikasleak bi taldetan banatuko dira eta talde bakoitza zelaiaren alde batean kokatu da. 40 pilota txikiak egongo dira, 20 gorri eta 20 urdin (pilota gorriak=elikagai osasuntsua eta pilota urdinak=elikagai kaltegarriak). Talde bat pilota gorriak izango ditu eta besteak urdinak. Jolasaren helburua denbora zehatz batean zure zelaiaren ahalik eta pilota gutxien egotea izango da. Irakasleak denbora amaitu dela esatean, ikasle guztiak lurrian eseri beharko dira eta momentu horretan zelai bakoitzean dauden baloiak kontatuko dira. Elikagai osasuntsuak 2 puntu zenbatuko dituzte eta kaltegarriak 1 kenduko dute. Behin kalkulua eginda, puntu gehien lortu duen taldeak, irabaziko du. Ikasleak esku-motz direla simulatuz, esku batekin jolastu beharko dute jolas osoan zehar.

Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa			
Gaitasun-aniztasuna → Egokitzapena: esku-motz.			
Helburuak			
Ikasleek jolas dinamiko baten bidez elikagaiak osasuntsuaren arabera bereizten ikastea, esku-motz direla irudikatuz, “zailtasun” horrekin jolasean aurrera egiten saiatuz, taldeka oztopoak gainditzeko eta azaleratzen diren emozioak ezagutzeko.			
Edukiak			
4. MULTZOA. Jarduera fisikoa eta osasuna			
Jardueraren barne logika			
Materiala	Harremanak	Denbora	Espazioa
- Pilotak (gorriak eta urdinak)	- Lankidetzaz - Aurkaritza	-50 minutu inguru	- Polikiroldegian
Garapen integrala			
Arlo motorra: koordinazioa			
Arlo kognitiboa: elikagaiak osasuntsuak diren arabera bereiztea eta estrategia erabiltzea			
Arlo soziala: elkarlanean jolastu arauak eta kideak errespetatuz.			
Arlo emozionala: Autoestimua (poza, tristura, urduritasuna) eta autokonfiantza.			

14. ELIKAGAIK			
Bi talde egingo dira. Talde bat osasunak eta beste kaltetuak. Irakasleak elikagaiak esango ditu eta esandako elikagaia nola klasifikatzen dugun arabera, batzuk harrapatzaileak eta besteak iheslariak izango dira. Adb: TOMATEA (osasuntsuak kaltegarriei harrapatzera joan beharko dira) ateratzen den elikagaia rola determinatzen du, hau da, elikagaia osasuntsua bada, hauek harrapatzaileak izango dira eta besteak iheslariak. Bestetik, ateratzen den elikagaia kaltegarria bada, hauek harrapatzaileak izango dira. Ikasleek hanka-motz direla simulatuz, txingoka korrika egin beharko dute jolas osoan zehar.			
Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa			
Gaitasun-aniztasuna → Egokitzapena: hanka-motz			
Helburuak			
Ikasleek elikagaiak osasuntsuaren arabera bereiztea, esku bat erabiliz, ahalik eta pilota gehien aurkako taldera jaurtitzea, elikagaiak modu dinamiko batean osasuntsuak ala kaltegarriak diren ikasteko.			
Edukiak			
4. MULTZOA. Jarduera fisikoa eta osasuna			

Jardueraren barne logika			
Materiala - Petoak	Harremanak - Lank./Aurk.	Denbora -50 minutu inguru	Espazioa - Polikiroldegian
Garapen integrala			
<p>Arlo motorra: Oreka eta koordinazioa abiadura</p> <p>Arlo kognitiboa: elikagaiak osasuntsuak diren arabera bereiztea.</p> <p>Arlo soziala: elkarlanean jolastu arauak eta kideak errespetatuz.</p> <p>Arlo emozionala: Autoestimua (poza, tristura, urduritasuna,...) eta autokonfiantza.</p>			

15. BOLEIBOLA			
<p>Boleibola lurrean joko paralinpiko bat da. Kirol honetan aritzeko, modu berdinean jolastuko dugu. Arauak berdinak dira, baina kasu honetan jokoa lurrean denez, jokalarien pelbisa momentu oro lurrarekin kontaktua izan behar du. Zelaia eta sarea jokalariei egokituko dira. Sei pertsonetako bi talde egingo dira eta ahalik eta puntu gehien lortzen duen taldea, irabazlean bihurtuko da.</p>			
Aniztasunari inguruko sentsibilizazioa			
Gaitasun-aniztasuna → Egokitzapena: eserita			
Helburuak			
Boleibola kirola bezala jolastea, ikasleek duten desgaitasuna sentituz eta euren buruetan sentitzeko, emozioak azaleratzeko eta taldearen eta errespetuaren garrantziaz ohartarazteko.			
Edukiak			
5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora liberako hezkuntza			
Jardueraren barne logika			
Materiala - Baloiak - Sarea	Harremanak - Lankidetz - Aurkaritza	Denbora -50 minutu inguru	Espazioa - Polikiroldegian
Garapen integrala			
<p>Arlo motorra: koordinazioa.</p> <p>Arlo kognitiboa: estrategia</p> <p>Arlo soziala: elkarlanean jolastu arauak eta kideak errespetatuz.</p> <p>Arlo emozionala: Autoestimua (poza, tristura, urduritasuna) eta autokonfiantza.</p>			

16. EZKUTAKETA INKLUSIBOA			
Txostenean adibide moduan erabilitako jarduera da eta bertan azalduta dago.			

4. Eranskinak: ebaluazio fitxa

IKASLEEN KONTROL-FITXA

<u>Gorputz Hezkuntza Inklusioarako bidea</u>	BAI	EZ	Batzuetan	Oharrak
1) Taldean lan egin dut?				
2) Talde lana sustatu dut?				
3) Nire kideak errespetatu ditut?				
4) Aurkitutako oztopoak gainditzen kapaza izan naiz?				
5) Ondo sentitu naiz izandako jarrerarekin?				
6) Ekintza edo kontzeptu berririk ikasi ahal duzu?				
7) Zure taldekideei kontuan hartu eta errespetu dituzu?				
8) Taldean kontuan hartu zaizu ekintzak egiterako orduan?				
9) Taldearen partaide bat sentitu zara?				
10) Taldean ondo aritu zara? Gustura sentitu zara?				
11) Egindako jarduerak eta ekintza ezberdinak errepikatuko zenituzke?				
12) Sekuentzia osoan zehar bizipen positiboak izan ditut ?				

-Nola sentitu zara saioan zehar?

- Zer hobetuko zenuke? Eta zuk, zer hobeto behar duzu?

-Nola sentitu zara arazo baten aurrean? Hankamotz, eskumotz... izatean?) (emozioak aipatu)

-Eta jolas bat irabaztean?

-Zer nota jarriko zenioke zeure buruari?

*Azken egunean egiteko galdera orokorrak:

- Egindako ekintza guztietatik, orokorrean zer ikasi duzu?

-Inklusioari buruz, zer ikasi duzu?

-Zer da gehien gustatu zaizuna?

-Eta gutxien?

- Egindako jolas guztietatik bat aukeratu beharko bazenu, zein izango litzateke?

- Nola sentitu zara egindako jarduera guztietan?

-Disfrutatu duzu? Gustatu zaizu?



